



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

**FAMILIEN PARTE HARTZEA ESKOLAN. KASU
BATEN AZTERKETA: LA SALLE ISASI
IKASTETXEA**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Barruetabeña Garate, Jon.

ZUZENDARIA: Ibarrola Aguirre, Jose Antonio.

2019/2020

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan 2019-2020 ikasturtean Eibarko La Salle Isasi ikastetxean, familien parte hartzea zelakoa den aztertu da. Horretarako; hasieran, familiei buruzko zenbait alderdi teoriko; familia kontzeptua, familia motak, familien gaur egungo egoera ... azaldu dira bilaketa bibliografiko baten bidez. Horrela, alderdi praktikoan barneratu aurretik, familien egoera eta gaur egun arte jasandako aldaketak ezagutzeko aukera eduki dut.

Ondoren, ikastetxeko ikasleen familiei inkesta bat pasatu zaie haien parte hartzea zelakoa den baloratu ahal izateko eta ikastetxeari buruz duten ikuspegia zein den ezagutzeko. Horrez gain, ikasleen tutoreei ere beste inkesta bat pasatu zaie familien parte hartzea balora dezaten.

Azterketa horretan, zenbait datu atera dira familiek zein tutoreek eskainitakoak eta grafikoen bidez islatuak izan direnak. Datu horiei esker, zenbait ondorio atera dira eta horiek hobetzeko proposamenak sortu.

Hitz gakoak: Lehen Hezkuntza, parte hartzea, ikastetxea, tutoreak, familiak.

RESUMEN

En este Trabajo de Fin de Grado, se ha analizado la participación de las familias de la escuela La Salle Isasi durante el curso escolar 2019-2020. Para ello; primero, se han explicado algunos aspectos teóricos acerca de las familias a través de una búsqueda bibliográfica; el concepto de familia, tipos de familia, situación actual de las familias ... De este modo, antes de adentrarnos en el aspecto práctico, he podido conocer el estado de las familias y los cambios que han experimentado hasta la fecha.

Posteriormente, a las familias de los alumnos de dichos colegios se les ha enviado una encuesta para evaluar su participación y sus opiniones acerca de la escuela. Además, los tutores de los alumnos también realizaron una encuesta para evaluar la participación familiar.

En este estudio, se extrajeron algunos datos que nos facilitaron las familias y los tutores, los cuales se reflejan en unos gráficos. Estos datos han llevado a una serie de conclusiones y propuestas para mejorarlos.

Palabras clave: educación primaria, participación, escuela, tutores, familias.

ABSTRACT

In this Final Degree Project, the participation of the families of La Salle Isasi school in Eibar during the 2019-2020 school year has been analysed. For this analysis; first of all, some theoretical aspects about the family have been explained through a bibliographic search; family concept, types of family, the current situation of the families ... In this way, before entering the practical aspect, I have been able to know the status of the families and the changes they have experienced to date.

Subsequently, a survey was sent to the families of the students of these schools to evaluate their participation and their opinions about the school. In addition, the students' tutors also conducted a survey to evaluate family participation.

In this study, some data were extracted that were provided to us by families and tutors, which are reflected in graphs. These data have led to a series of conclusions and proposals to improve them.

Key words: Primary education, participation, school, tutors, families.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. JUSTIFIKAZIOA	7
3. MARKO TEORIKOA	8
• FAMILIA.....	9
- Zer da familia?	9
- Familia motak historian zehar	10
- Familiak jasandako transformazioak	11
• FAMILIA MOTAK	12
- Familia nuklearra.....	13
- Hedaturiko familia	13
- Guraso bakar bateko familia	13
- Pertsona bakarreko etxebizitzak	14
- Familia homoparentalak.....	14
- Berreraikitako familiak.....	14
• FAMILIEN PARTE HARTZEA ARAUDIAREN ALDETIK	14
○ Ley Orgánica del Estatuto de Centros Escolares (LOECE, 1980)	15
○ Ley Orgánica del Derecho a la Educación (LODE, 1985).....	15
○ Ley de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE, 1990)	15
○ Ley Orgánica de la Participación, Evaluación y Gobierno de los centros (LOPEG, 1995)	16
○ Ley Orgánica de Calidad Educativa (LOCE, 2002).....	16
○ Ley Orgánica de Educación (LOE, 2006)	16
○ Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE, 2013)	16
• FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA	17
- Parte hartzearen garrantzia.....	18
- Parte hartzearen onurak.....	19
○ Ikasleentzako onurak	20

○ Irakasleentzako onurak	20
○ Gurasoentzako onurak	20
- Parte hartzeko zailtasunak	21
4. HELBURUAK	22
• GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURU NAGUSIAK	22
• GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK	23
5. METODOA	23
• TESTUINGURUA	23
• PROZEDURA	24
- Lagina	24
- Informazio jasotzeko baliabidea	24
6. EMAITZAK	26
• FAMILIAK	26
• TUTOREAK	39
7. ONDORIOAK	48
8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	50
9. BIBLIOGRAFIA	53
• ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:	53
• ARAUDIAREN BIBLIOGRAFIA	55
10. ERANSKINAK	57
• 1. ERANSKINA: FAMILIEN GALDETEGIA	57
• 2. ERANSKINA: TUTOREEN GALDETEGIA	62
• 3. ERANSKINA: FAMILIA ETA TUTOREENTZAKO GUTUNA	66

1. SARRERA

Eskuartean dugun dokumentua Gasteizko Hezkuntza eta Kirol Fakultateko Gradu Amaierako Lanari (GrAL) dagokio, 4. mailako ikasle guztiek burutu beharreko zeregina, alegia. Lanaren izenburua: Familien parte hartzea eskolan eta hezkuntza sisteman da.

Gaztetatik, argi eduki dut, nik nahi nuena lehen hezkuntzako irakaslea izatea zela; nahiz eta, egunera arte esperientzia gutxi izan alor honetan; praktiketan ibilitako hilabeteak soilik. Nik uste dut, etapa honetan izandako irakasleren batek influentziak eta umeekin aritzea atsegin izateak bultzatu zidala ikasketa hauek aurrera eramatera.

Etapu hau da ikasleek gehien ikasi eta gehien disfrutatzen duten garaia ikastetxera joaten, lagun berriak egiten eta batez ere ikasten. Umeak lehen hezkuntzara; askok, gauza handiegirik jakin gabe datoz, eta bertatik jada, kontzeptu garrantzitsu asko barneratuta ateratzen dira.

Azken urteotan gizartea aldatuz joan da eta familiek izugarrizko aldaketak jasan dituzte haien egitura eta erlazioetan. Balore berriak sortu dira orain arteko familia tradizionala ordezkatzen dutenak eta gaur egun mota desberdin asko topatzen dira. Aldaketa horiek ikastetxeetan eta familiaren funtzioetan eragin handia izan dute: umeak geroz eta azkarrago eskolatzen dira, familia askok hezkuntza erantzukizunak ikastetxearen menpe uzten ditu, familia askok ez dakite umearen hezkuntzan zein urrats jarraitu ... Familiek geroz eta joera handiagoa dute ikastetxeei haien seme-alabak hezteko erantzukizuna eskuordetzeko (Bolívar, A. 2006). Honek gurasoen arduragabetasun falta sententzia uzten die irakasleei, haurren ikaskuntza prozesuari dagokionez.

Hori dela eta, argi eduki behar da, familia eta eskola direla umeak haien hezkuntzan aurkitu ditzaketen oinarriko bi ardatzak hauek baitira hezkuntza eta sozializazio eragile nagusiak. Biek daukate haurrari lehen ikaskuntza ezartzeko beharra alderdi emozionala landu eta esperientzia hezitzaile eta balore ezberdinez hornitzeko beharra; beraien bizitzarako beharrezkoak izango direnak. Horregatik dauka hainbesterako garrantzia biak erlazionatu eta haien eginkizunak bateratzea eta elkarrekin lan egin eta hezteko. Hezkuntza zereginak partekatu behar dituzte eta horretarako jarraipen bat egon behar du, haurraren garapen emozionala, intelektuala eta soziala osatzeko. (Díaz, 2014)

Eskola eta familiak konfiantzazko testuinguru batean erlazionatu behar dira eta argi eduki behar dute esfortzuak eta betebeharrak partekatu behar dituztela helburu berdinekin bat lortze aldera; heziketa eta umeen garapen integrala. Kooperazioa, kolaborazioa, negoziatioa eta

komunikazioa oinarrizkoak izan behar dira helburu hauek lortze aldera eta betebeharrak partekatu behar dituzte, umearen heziketa bien arteko ataza baita (Gonzalez, 2015).

Honengatik guztiagatik, hurrengo lanaren helburua familia eta eskolaren arteko erlazioa erakustea da, hauek baitira umearen garapenerako funtsezko bi alderdiak. Bien artean agertzen diren erlazioak konstruktiboak eta gertukoak izan behar dute eta bata besteari osatu behar diete haurren garapenean aurrera egin ahal izateko. Familia eta eskolaren arteko harremanek umearengan influentzia dakar; beraz, influentzia hori positiboa izan dadin erlazio honek aurretik aipatutako ezaugarriak edukitzea ezinbestekoa da.

Lan honetan zehar, familia eta ikastetxearen arteko erlazioaren garrantzia aztertuko da, gehienetan beharrezkoa baino txikiagoa izaten dena, egoera hau aldatzeko helburuarekin. Beraz, hasieran, zenbait alderdi teoriko azalduko ditugu familia kontzeptua argi utziz lehenik eta behin. Horrekin batera urteetan zehar familiak izandako bilakaera eta funtzioen aldaketak ikusiko ditugu, baita sortutako familia mota berriak ere.

Ondoren, eta jada alderdi praktikoan barneratuta, Eibarko ikastetxe batean familian parte hartzea ezagutzeko hainbat inkesta pasako ditugu; batzuk ikastetxean ikasten duten ikasleen familiei eta beste batzuk ikastetxean lan egiten duten ikasleen tutoreei. Modu honetan, ikastetxean parte hartzen dutenen ikuspuntuak azertu ahal izango dira.

Datu horiei esker, ikastetxe honetako errealitatea zein den ikusi ahal izango da eta hortik abiatuta ondorioak atera eta ondorio horietatik hobekuntza proposamenak sortu.

2. JUSTIFIKAZIOA

Gradu Amaierako Lan honen helburu Nagusia; beraz, familia eta ikastetxearen arteko kolaborazioa eta komunikazioa ezagutaraztea da. Bi alderdiak elkarturik egotea eta bien artean komunikatzea beharrezkoa da; izan ere, umearen hezkuntza bien ardura da. Erlazio honetan umeak dira onuradun nagusiak, beraien heziketa, garapena, jarrera eta jokaera ikastetxearekiko hobetuz.

Familiak bere seme-alaben ikaskuntza prozesuan duen garrantziaren inguruan aztertzeo helburuarekin aukeratu nuen Gradu Amaierako Lan hau. Familiak duen parte hartzea ezagutu eta aztertutako ikastetxean (La Salle Isasi) gurasoek irakasleekin duten kolaborazioaren berri jakin nahi izan dut, baita inkestaren bidez bi alderdiek dituzten iritziak eta beharrak ezagutzea.

Nire ikasketetan zehar ikusi dut bai familia zein eskola umearen lehen sozializaziorako oinarri nagusiak direla, bere heziketan zehar rol ezberdinak betez; hala ere, biek helburu bera jarraituz: umearen heziketa eta garapen integrala. Hortaz, bien arteko kolaborazioa beharrezkoa dela ikusten da eta kolaborazio horren berri ikastea izan da lana hautatzeko beste helburuetako bat.

Horrez gain, oso interesgarria iruditzen zait parte hartzeko dauden modu ezberdinak ikustea eta honek dituen alderdi positiboak eta zailtasunak identifikatzea

Familien parte hartzeak hezkuntza eremuan sortzen dituen eraginak oso positiboak dira; beraz, ez da logikoa oraindik familien parte hartzea sustatzen ez duten ikastetxeak aurkitzea. Familiek parte hartzen dutenean, erlazioak eta ikastetxeko bizikidetzak hobetzeaz gain, ikas komunitateari ere eragin positiboak dakarkio. Honek guztiak, ikasleen ikaskuntza prozesuetan hobekuntzak dakar eta baita beraien portaeran zein eskolarekiko jarreran. Argi dago, familien parte hartzeak ikaskuntza komunitateetan kalitatezko hezkuntzaren seinale dela eta hori bai familiek zein ikastetxeek bultzatu egin behar dute.

Familiak duela umearen garapen osoaren ardura bakarra edota eskolak duela umea hezteko ardura bakarra pentsatzea guztiz okerra da. Umea bi testuinguruetan (familian eta ikastetxean) barneratuta dago eta bietatik eskuratzen ditu ezagutza, jarrera, balore ... berriak. Ikasleen bizitzan bai familiek zein ikastetxeek duten influentzia izugarria da eta horregatik beharrezkoa da elkarrekin lan egitea; izan ere, biek dute helburu bera: umearen garapen integrala.

Familiak eta eskolak banatuta lan egiten dutenean, umea galduta (kaos batean) aurkitzen da; izan ere, kontraesanek beteta aurkitzen du bere ingurugiroa; etxetik heziketa mota bat jasotzen du eta ikastetxetik beste bat; etxean balore zehatz batzuk transmititzen zaizkio,

ikastetxean beste batzuk ... Kaos hau, heziketaren oinarriko alderdietatik hezkuntza prozesu konplexuenetara luzatzen da.

Honengatik guztiagatik, gure pentsamoldea eta parte hartzeari buruz daukagun ikuspuntua aldatzeaz gain, gaur egungo praktikak ere aldatu behar ditugu, familien parte hartzea sustatuko duten metodologia bat indartuz.

Oso garrantzitsua da familiak eta ikastetxeek lotura estua edukitzea. Familiek, umeak hain gazteak izanda, gehiago inplikatzeko dira umearen heziketan, batez ere lehenengo urteetan. Umeei bi erreferentzia dituzte; alde batetik, gurasoak eta bestetik, irakasleak. Erlazio hau, tutoretzen edota eskolaz kanpoko jardueren bidez hobetu daiteke, zenbait arau, errutina edota eguneroko bizitzarako ohitura ezberdinen bidez.

Parte hartze guzti hau ez du familiaren esku soilik erori behar, baizik eta ikastetxe eta irakasleen gain ere. Askotan, irakasleek ez dute ikasleen familiekin gertuko erlazio bat ezarri nahi. Egunero, geroz eta familia atzerritar gehiago daude ikastetxean. Familia hauengatik, bai irakasleek zein hezkuntza komunitateak familia horien seme alaben integrazioa bultzatu behar dute hezkuntza prozesuan. Askotan, hauek ez dute mantentzen erlazorik beraien seme alaben irakasle zein tutoreekin; gehienetan, hizkuntzagatik. Saiatu behar gara, ezberdintasun hau oztopo bat ez izatea; izan ere, badaude horretarako soluzioak eta beraien umeen ikaskuntza prozesuaren parte izan daitezkeen.

3. MARKO TEORIKOA

Alderdi teoriko honetan, lehenik eta behin, garrantzitsua da familia zer den definitzea eta horretarako, "familia" hitzak, historian zehar izandako aldaketak aztertuko ditugu bere jatorri etimologikotik, gaur egun daukan esanahira arte. Behin familia kontzeptua argi izanda, familia mota ezberdinak ikusiko ditugu; izan ere, historian zehar, familiek eboluzionatu egin dute, gaur egunera arte eta; modu honetan, familia tradizionala jada ez da familia mota nagusia. Ondoren, familien parte hartzea aztertuko da araudi ezberdinen aldetik (Leyes Orgánicas de Educación en España) eta azkenik familia eta eskolaren arteko erlazio bat egingo da.

Honekin bilatzen dena, familia deitzen duguna bere osotasunean ulertzea da; historian zehar jasandako aldaketen kontziente izan eta gaur egun ezagutzen dugun "familia" hitza ikas komunitatean aktibo bat bilakatu bertan hezten ari diren umeen hezkuntzari onurak ekartzeko.

- FAMILIA

- Zer da familia?

Atal honetan, gaur egun ezagutzen den familia kontzeptua, XX. mendean sartu arte ezagutzen zen familia kontzeptuarekin alderatuko da. Hemendik abiatuta, eta gaur egungo familia kontzeptua ezagututa, errazagoa izango da hauen erlazioa ikastetxe eta irakasleekiko aztertzea.

Etimologiko, familia hitza “famulus” terminotik eratorria dago “esklabo, morroi” esan nahi duena, baita latinetik ere “fames” (gosea), “etxe berean elikatzen diren pertsona taldea *pater familias* batek elikatzeko betebeharra duena” (Oliva, 2015).

RAE-ren hitzetan (Real Academia Española, f. definición 1) familia, “elkarren artean erlazionatutako eta batera bizi diren pertsonen multzoa da”. Hala ere, kontzeptu tradizionalak, familia etxe berean bizi diren talde nukleartzat hartzen du gizon eta emakume batez osatuak eta ezkonduak eta euren seme-alabekin; non, aitak etxetik kanpo lan egiten duen etxera dirua ekartzeko eta familia bizitzeko baliabideak lortzen dituen, sostengu ekonomikoa. Bitartean amak, etxean lan egiten du eta seme-alabak zaintzeko ardura du (Molina, 2011)

Palacios eta Rodrigok (1998) (in Ceballos,2006) testuan dioten arabera, familia, gizakiaren garapenaren funtsezko nukleoa da. Umearen lehenengo eta oinarrizko sozializazio iturria da eta bertan lortzen dira bizitza heldurako oinarrizko kontzeptuak. Horrez gain, bertan ikasten dugu zailtasunak aurrera eramaten eta erantzukizunak gure gain hartzen.

Familia oinarrizko egitura soziala da rol batzuk argi eta garbi ezarriak dituenak (ama, aita, seme-alabak) (Puebla, 2015).

Umea jaiotzen den momentutik, familiak funtsezko papera du haren sostengu eta garapen prozesuan zehar. Haurra, babes gabe jaiotzen da eta oraindik ez da pertsona heldua, garapen prozesu luze baten ondoren lortuko du heldutasun hori. Horretarako, familiak, bai fisikoki bizirauteko eta pertsona autonomoa izaten ikasteko oinarrizko ezagutzak eskaini behar dizkio (Maestre, 2009).

Familiak gainera, loturak ezartzen laguntzen dizkio umeari beste kontestuekiko. Etxean, umeak bere lehenengo erlazio afektibo eta emozionalak eskuratzen ditu eta oinarrizko arau eta jokabideak bereganatzen ditu; hauek, baliagarriak izango zaizkio ondoren eskolara eramateko eta etorkizuneko beste hainbat kontestutan. Umeak, familiarengatik jasotako hezkuntza eta ikasketa hauek oso garrantzitsuak dira; beraz, eskolaren funtzioa da, jakintza

hauek zabaltzea, horiek aldatzen saiatu beharrea, beste pertsona batzuekin sozializatzeko aukera eman eta umearen garapen integrala bultzatuz (Blanco, 2014).

Gonzalezen (2015) arabera, familia jaiotzen garen taldea da; non, bertan, umearen oinarritzko beharrak asetzen diren bere garapen kognitibo, afektibo, sozial eta emozionalari dagokionez.

Ikus daitekeen moduan, asko dira familiaren esanahi bat bilatzen saiatzen diren autoreak bere kontzeptua argitu nahian. Familiaran historian zehar izandako eboluzioak era askotariko definizioak onargarriak izatea dakar; hala ere, gaur egungo egoerarekin alderatuz, antzina, familiak bazuen nahiko estruktura finko bat eta horrek, familia kontzeptua trinkoagoa izatea zekarren. Gaur egun, asko dira familia eraikitzeke moduak eta; hortaz, zaila da familia kontzeptua orokorrean definituko duen definizioa bilatzen. Jarraian, familiak historian zehar izandako aldaketak azalduko dira, familia kontzeptuan eta gaur egun daukagun egoerari hurbilketa bat egin nahian.

Familia bat zer den definitzerako orduan, argi eta garbi eduki behar dugu kontzeptu honek aldaketak izan ditzakeela eremu geografikoaren eta bizi garen momentu historikoaren arabera. OME-ren (Osasunaren Mundu Erakundea) familia, bizileku berean bizi diren eta elkarren artean erlazionaturik dauden pertsonen multzoa da. Familia zehazteko erabilitako ahaidetasun maila datu horien erabileraren arabekoak izango dira; beraz, ezin da zehaztasunez eskala orokor batean definitu, Prat eta Río, (2005) (in Dominguez, 2014).

- Familia motak historian zehar

Historiaurretik gaur egunera arte, familia existitu da eta era askotariko transformazioak jasan ditu, nahiz eta kontzeptua mantendu, haren estruktura aldatuz doa garaiaren eta sozietatearen arabera.

Autore guztiek, argi dute, familia nukleo ezinbestekoa dela gizakiaren garapenerako; izan ere, bertan, pertsona bakoitzaren nortasuna eta izaera garatzen dira. Nukleo hori oso ezberdina da garai batetik bestera eta herrialde batetik bestera. Familiak gizabanako bakoitza emozionalki garatzen laguntzen du bizitzarako (Valencia, 2016).

Familia jaiotzen da espezie bat mantentzeko ardura biologikotik, umeak lehenengo urteetan behar dituen ardura eta zaintzatik eta baita generazio batetik bestera kultura ezaugarriak transmititzeko beharragatik (Valencia, 2016).

Hau jakinda eta familiaren estruktura zelan aldatu den hobeto ulertzeko, sozializazio kontzeptua zer den argi utzi behar da. Sozializazioa, pertsona batek sozietate bateko kultura, arauak eta baloreak lortzeko prozesua da; hau da, ikasi eta barnerratu egiten ditu bereak eginez eta bere izateko eran integratuz. Beste batzuekin interakzioa edukitzerako orduan,

gizarte horretan parte hartzeko pentsatzeko, sentitzeko eta jokatzeko erak garatzen dira. Hori dela eta, familia da agente sozializatzailearik garrantzitsuena; izan ere, umea jaiotzen denetik familia da kontaktuan jartzen zaion lehen agente sozializatzailea eta bestalde, loturak ezartzen ditu gainerako kontestuekin (Vander Zanden, 1986)

Antzinatean, ikusi dugun moduan, sozietatea, familian oinarrituta egon da. Gaur egun ere, horrela izaten jarraitzen du; hala ere, zenbait aldaketa jasan izan ditu familiak, bere era tradizionaletik gaur egun ezagutzen den familia modernora arte, bai funtzioetan, eraketan eta baita roletan ere.

Sozializazio funtzioaz gain, familiaren rolak ugariak izan dira eta mendeetan zehar eboluzionatuz joan dira. Urte asko izan dira gizarte tradizionala alde batera utzi zenetik; non, familiak zuen umearen hezkuntzaren gaineko ardura. Garai horietan eskolarik ez zen existitzen eta gehienetan familiak lan mundurako ere prestatzen zuen bere seme-alaba, gehien bat semea, emakumeak historiaurreko garaitik aurrera, etxeko kudeaketaz eta umeren zainketaz arduratzen zen eta. Emakumeak etxean egiten zuen lan, eta gizona lanera joaten zen etxetik kanpo (ehizara eta janari bila antzinaroan eta lanera gizarte tradizionallean); hau da, gizona zen etxeko sostengu ekonomikoa. Hori dela eta, gizarte tradizionallean, semeak formakuntza profesional bat jasotzen zuen etxean, lan bateri begira.

Gaur egun eta gizarte modernoan, egoera aldatu egin da, jada seme-alabek ez dute etxean ikasten, eskolak sortu baitira. Horrez gain, familiak zituen funtzioak murriztu egin dira eta hortaz, familia modernoa izatera pasatzen da (De Pablo, 1975).

Familiak daukan funtzio garrantzitsuena, umea kanpoko mundurako prestatzea da, segurtasuna, konfiantza, laguntza emozionala ... ematen. Familiak jada, ez dauka umearen hezkuntzan lehen zeukan paper hori, ikastetxeak arduratzen direlako horretaz; hala ere, bien arteko kohesio bat egon behar du.

Gizarteak, mendeetan zehar, transformazio ugari jasan ditu familian eta ikastetxeetan ondorioak ekarri dituenak; hori dela eta, bi kontestu hauek ere aldaketak jasan dituzte.

- Familiak jasandako transformazioak

Argi dago, familia kontzeptua historian zehar nahiko aldatu dela; batez ere, azken 30-40 urteetan. Aldaketa hauek oinarri politiko, ekonomiko eta sozialak dituzte.

Familia industria aurreko garaiko gizartean, familia sostengu ekonomikoa zuena zen, agente sozializatzaile bakarra eta; beraz, familia osatzen zuten kideen hezkuntza guztizkoa zen.

Familiak ezartzen zizkieten balore, tradizio eta arauak onartu egiten ziren. Familia hauek partaide ugari osatuta zeuden; non, hainbat generaziok jerarkia zorrotz batez inguratzen zituen (patriarkatua).

XIX eta XX. mendeetan jasatako industria iraultzak familiaren eboluzioan aldaketa ugari ekarri zituen. Iraultza honek familiak tradizionalki jokatzeko kideen babes- eta ekoizpen- rola ezabatzea ekarri zuen. Hemen, kideen hezkuntza lehenengo urteetatik lantzeari garrantzia eman zitzaion eta horrek, hezkuntza sistema eta lehenengo umeen eskolak agertzea ekarri zuen. Eskolari, umei laguntzeko eta instrukzioa emateko funtzioa ezarri zitzaion; familiar aldiz, baloreak, ohiturak, jarrerak ... ezartzekoa.

Garai honetan, irakaslea familiako partaide bat zen ia. Gaur egun, familia egoera aldatu egin da. Jadanik, emakumea ez da soilik etxeko zereginetara eta umeen sostengura aritu behar baizik eta jasatako rol aldaketek, emakumea lan mundura sartzea ekarri dute, ama bere umeak zaintzera denbora gutxiago arituz, eta aitaren zereginak familiaren zainketan ugarituz, bien artean banatuz (Maestre, 2009).

Beraz, ikusi dezakegun moduan, XX. mendera arte familia tradizionala zen nagusia, baina gaur egun hori aldatu egin da. Emakumea etxetik kanpo lan egiten du beraz, ez dauka umearen zainketarako ardura bakarrak, horrek esan nahi du etxean aita eta ama zereginak partekatu behar dituztela.

Gaur egun gainera, ezkontzak geroz eta gutxiago ematen dira, beranduago ezkontzen da eta geroz eta seme alaba gutxiago edukitzen dira. Familiaren rola, asko aldatu da urteetan zehar eta horrekin batera, familiak eratzeko moduak ere. Jada ez dira familiak gizonezko, emakumezko eta seme-alabez soilik osatzen, baizik eta familia mota ugari ezagutzen dira gaur egun jarraian ikusiko ditugunak.

- **FAMILIA MOTAK**

Aurretik aipatu bezala, familiak historian zehar eboluzionatu egin dute gaur egunera arte; non, jada, familia tradizionala ez da nagusitzen den familia mota. Hainbat dira gaur egun ditugun familia ereduak historian zehar jasandako eboluzioaren ondorioz. Pertsonaren bizi itxaropena handitu egin da urteetan, geroz eta familia gutxiago existitzen dira eta geroz eta partaide gutxiagok osatzen dute familia bakoitza. Horrez gain, emakumeak lan munduan sartzeak umearen zainketa aita eta amaren artean partekatzea ekarri zuen. Aiton amonek ere, rol garrantzitsua dute familian; izan ere, askotan laguntza eman dezakete gurasoei, aiton-amon eta umearen arteko erlazioa sendotuz (Domínguez, E. 2014).

Horrez gain, geroz eta seme-alaba gehiago jaiotzen dira ezkontzaz kanpo eta geroz eta familia gehiago daude guraso bakarrekoak; non, aita edo amak bi rola betetzen dituzten. Familia askok ere, umea, adoptatu egiten dute bai bikotekidearen pertsona baten seme-alaba edota kanpoko. Bikote homosexuala ere geroz eta gehiago daude.

Hauek guztiak sailkatzeko kontuan eduki behar da familia bakoitzaren egoera, bizi diren gizartea, familiako partaide kopurua, familiaren osaketa, kultura ... Jarraian gaur egun ditugun familia motak ikusiko ditugu.

- Familia nuklearra

Aitak eta amak eta bien artean izandako seme-alabez osatuta, leku berdinean bizi direnak. Antzina, hau zen familia mota orokorra; non, aita zen sostengu ekonomikoaz arduratzen zena eta ama zen etxeko lanez eta umea zaintzeaz arduratzen zena, baita sostengu afektiboa emateaz familiako kideei.

Gaur egun, emakumea lan munduan sartzearekin batera rola aldatu dira eta jada bien ardura da etxeko eta kanpoko betebeharez arduratzea.

- Hedaturiko familia

Generazio ezberdinetako partaideek osaturiko familia mota da leku berean bizi direnak. Adibidez, aitak eta amak osaturiko familia beren seme alabekin eta aiton-amonekin. Familia tradizional mota hau normalean, baliabide ekonomiko urriagoak dituzten herrialdeetan ikusten da eta taldea bezalako baloreak gehiago errespetatzen dituzten kulturetan (León, 2019).

Familia mota hauetan, kooperazioa ematen da guztiaren gaintik eta beraz, familiako betebeharrak errazago bete daitezke. Hala ere, intimitatea galtzen da eta askotan espazio falta da sortzen den arazoetako bat.

- Guraso bakar bateko familia

Hitzak esaten duen bezala, guraso bakar batez osaturiko familiak dira, bai aita edo amak. Orain dela urte gutxira arte, ohikoena familia mota hauetan, ama bere seme-alabaz osaturik ikustea zen, bai dibortziaturiko ama batek bere umearen zaintza bere gain hartuta edo baita ama haurdun geratu eta aita umearen kargu egin nahi ez izatea.

Hala ere, gaur egun, egoera aldatu egin da. Oraindik ere, kasu gehienetan emakumeak izaten dira familia mota hau osatzen duten pertsonak baina oraingoan, ama bakarrik izatea erabaki

duten emakume gehiago daude lagundutako ernalkuntza bat eta gero. Horrez gain, geroz eta aita gehiagok ere erabakitzen dute bere seme-alabaren zaintzaz arduratzea dibortzio baten ostean. (León, 2019)

- Pertsona bakarreko etxebizitzak

Gaur egungo gizartean oso ohikoa den egoera bat da. Bakarrik bizi diren pertsonak dira oso arrazoi desberdinengatik: bikotekiderik ez edukitzea, dibortziaturik egotea ... (Domínguez, E. 2014).

Egoera honetan bizi diren pertsonak, kontaktuan jarraitzen dute bere familiekin (guraso, seme-alaba ...).

- Familia homoparentalak

Bikotekide homosexual batez; hau da, bi aita edo bi ama eta beraien seme-alabez osaturiko familiak dira. Duela gutxira arte, bikotekideez hitz egiterakoan suposatzen zen bikotekide heterosexualez hitz egiten zela; baina, gaur egun egoera aldatu da eta pertsona homosexualekiko aurreiritziak aldatuz doaz poliki-poliki (León, 2019).

- Berreraikitako familiak

Familia mota honetan, bi kideetako bat edo biak dibortzio batetik datozen pertsonak dira. Berreraikitako familietan, kide batek gutxienez, seme-alaba bat eduki behar du aurreko familiatik datorrena. Seme alabak, aitarenak izan daitezke eta amarenak ere; hortaz, bien arteko erlazioa anaiorde batenak dira. Geroz eta dibortzio gehiago ematen ari dira eta horrek familiak berriz eraikitzea dakar. Eskolako errealitatean; beraz, honen eraginez geroz eta gehiago dira ikusten diren familia egiturak.

- FAMILIEN PARTE HARTZEA ARAUDIAREN ALDETIK

1978. urteko konstituzioko 27. Artikuluak hezkuntzarako eskubideari erreferentzia egiten dio eta artikulu honen bi puntuk esplizituki familien parte hartzeari egiten dio erreferentzia. Bi puntu hauek 27.5 eta 27.7 dira (Andrés eta Giró, 2016).

- 27.5 Aginte publikoek guztiok dutela hezkuntzarako eskubidea bermatzen dute, hezkuntzarako programazio orokor baten bidez, inplikaturiko sektore guztien partaidetza eraginkorraren bidez eta hezkuntza zentroen sorreraren bidez.
- 27.7 Irakasle, guraso eta bere kasuan, ikasleek, administrazioak funts publikoen bidez

ahalbidetutako ikastetxe ezberdinetako kontrol eta gestioan parte hartuko dute, legeak ezartzen dituen baldintzen arabera.

1978ko konstituzio honetatik aurrera eta gaur egunera arte 7 lege organiko ezarri dira. Jarraian, ez da urteetan indarrean egon diren hezkuntza lege bakoitzari buruzko azterketa zehatz bat egitea bilatzen; baizik eta bakoitzak familien parte hartzeari buruz ikastetxe barruan diotena aztertzea:

- Ley Orgánica del Estatuto de Centros Escolares (LOECE, 1980)

Bere 5. Artikuluak; esate baterako, dio bai guraso zein tutorek eskubidea dutela beraiek bidezkoa deritzon hezkuntza aukeratzeko bere seme-alabentzat, baita horretarako aproposa ikusten duten ikastetxea ere.

26. artikuluan aipatzen da ere, lege honen bidez, Zuzendaritza Kontseilua deituriko organo bat sortzen dela; non, elkarte horrek aukeratutako lau gurasok osatuko zuten.

28. artikuluan bestalde, gurasoek parte hartuko duten beste organo bati egiten zaio erreferentzia, Ekonomia Batzordea, non, elkarteak aukeratutako hiru gurasok parte hartuko duten.

- Ley Orgánica del Derecho a la Educación (LODE, 1985)

LODE-k dakarren berrikuntza nagusietako bat Eskola Kontseiluaren sorrera da, hezkuntzari dagokion gobernu organo gorena alegia.

Eskola Kontseiluan, ikasleen guraso eta ikasle kopuru jakin batek parte hartuko du eta kopuru hau inoiz ez da izango kontseilua osatzen duten kideen herena baino txikiagoa.

Estatuko Eskola kontseilua, ikasleen gurasoez osatuta egongo da eta hauen izendapena ikasleen guraso elkarte adierazgarriek egingo dute; baita, Eskualdeko Eskola Kontseiluan, Udal Eskola Kontseiluan eta Foru Eskola Kontseiluan.

- Ley de Ordenación General del Sistema Educativo (LOGSE, 1990)

Lege honetan hezkuntza sistema ezartzen da, hezkuntzarako eskubideari eta honek lan egiten duen hezkuntza erakundeari dagokionez. Lege honen artikulua batean islatzen da familien parte hartzea; bertan, gurasoen parte hartzearen eskubidea aitortzen du hezkuntza helburuak lortze aldera.

- Ley Orgánica de la Participación, Evaluación y Gobierno de los centros (LOPEG, 1995)

Lege hau, LODE-ren planteamenduak momentuko errealitatera egokitzeko helburuarekin sortu zen. Horrela, familien parte hartzeari dagokionez, familiek hezkuntza zentroetako erabakietan parte hartuko dutela ezartzen da Eskola Kontseiluaren bitartez.

Modu honetan, Eskola Kontseiluak, ikastetxeen funtzionamenduan, kudeaketan, garapenean eta Aurrera eramango diren jarduera osagarrietan parte hartuko du.

- Ley Orgánica de Calidad Educativa (LOCE, 2002)

Lege honetan gurasoen eskubidea aldarrikatzen da hezkuntza zentroaren kontrol eta gestioan, baita bere seme-alabekin zerikusia duten erabaki akademikoetan entzunak izateko eskubidea. Horrez gain, betebeharrak gisa ezartzen da, irakasleekin eta ikastetxeekin elkarlanean bere seme-alaben hezkuntza prozesuaren berri jakitea eta laguntzea.

Lege honen bidez, ez da Eskola Kontseiluaren eraketa aldatzen; hala ere, beren parte hartzea mugatzen du, beraien betebeharrak sektore bakoitzeko kompetentzia eta erantzukizunei loturik egongo dela aipatzerakoan.

- Ley Orgánica de Educación (LOE, 2006)

Lege hau duela zenbait urtera arte indarrean egon zena, enfasi handia ematen dio familien parte hartzeari hezkuntza sisteman. Familiak elkarlanean aritu beharko dira eta bere seme-alaben eguneroko lanarekin konpromisua hartu beharko dute.

Horrez gain, hezkuntza sistemak jarraitzen dituen printzipioak definitzen ditu; baita, hezkuntza komunitatearen parte hartzea ikastetxeko funtzionamenduan, gobernuan eta antolakuntzan.

Gainera, parte hartzea, herritar autonomo, aske, arduratsu eta konstituzioaren printzipioekiko arduratsuak izateko oinarritzko balore bezala definitzen du.

LOE-k, ikastetxe eta familien arteko lankidetzak gidatzeko gaitasuna, ikastetxeko zuzendariari ezartzen dio. Honekin batera, LOE-k, Eskola Kontseiluko gobernu organoa berreskuratzen du, bere eraketa LOPEG eta LOCE-k definituriko era berean.

- Ley Orgánica para la Mejora de la Calidad Educativa (LOMCE, 2013)

LOMCE-ren arabera, hezkuntza, gizarte guztiaren betebeharra da eta ez soilik hezkuntza sistemarena. Guztiok rol aktibo bat hartu behar dugu; izan ere, hezkuntza, enpresei,

sindikatuerei, gobernutik kanpoko erakundeei eta batez ere, familiei eragiten dien zeregin bat da.

Lege berri honekin, Eskola Kontseiluaren eraketa ez da aldatzen; hau da, familiei dagokienez, guraso kopuru eta ikasle kopuru zehatz batek jarraituko dute Eskola Kontseiluko parte izaten eta honako hau ezingo da Kontseilua osatzen duten kide guztien herena baino txikiagoa izan.

Hala ere, lege berri honetan badago aldaketa bat. Konpetentziei dagokionez, hauek onartu eta ebaluatzetik (LOE-n egiten zen bezala) ebaluatzera soilik pasatzen da eta hartu beharreko jarraibideak erabakitzetik, honako hauen berri ematera soilik.

Behin hezkuntza lege hauek aztertuta, ondoriozta dezakegu familien parte hartzea hezkuntza zentroetan garrantzi handia eduki duela; 1978ko konstituziotik eta horren ondoren indarrean jarritako lehen hezkuntza legetik, gaur egun arte; non, gizarteak eta batez ere familiek, rol aktibo bat jokatu behar duten hezkuntzan.

- **FAMILIA ETA ESKOLAREN ARTEKO HARREMANA**

Familiek eskolan parte hartzeko erak edo kategoriak deskribatzeko Nafarroako Eskola Kontseiluak bultzatutako ikerketa bat hartuko dugu oinarri (González, Repáraz, eta Sanz, 2016).

Aipatutako ikerketan, Nafarroa osoko 24 ikastetxe eta 1259 familiei inkesta bat egin zaie eta bertan jasotako emaitzak bildu dira. Bertan, familien komunikazioa ikastetxearekiko, familien elkarlana ikastetxeak antolatutako jardueretan, familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta hezkuntza inplikazioan, ikastetxearen poztasuna eta bertako pertenezia zentzua, itxaropenak eta familien inplikazioa seme-alaben arrakastan eta Guraso Elkarte eta Eskola Kontseiluetan parte hartzearen inguruko kategoriak definitu dira.

Lehenengo aldagaian “familien komunikazioa ikastetxearekiko”, banakako zein talde tutoretzen, beste irakasleekiko bileren, zuzendaritza taldearekiko bileren, komunikazio zuzena zein zeharkakoaren (telefono, korreoz ...), zentroarekin izandako bileretan jorratutako gaien eta komunikaziorako erabilgarritasun eta eskuragarritasunaren inguruan galdetu zaie.

Bigarren aldagaiak “familien elkarlana ikastetxeak antolatutako jardueretan”, formakuntza jardueretan, lan batzordeetan eta eskolaz kanpoko zein gelako jardueretan dagoen parte-hartzearen inguruko azterketa egiten du.

Hirugarren aldagaiak “familien konpromisoa ikastetxearen hezkuntza proiektuan eta hezkuntza inplikazioa”, familiek hezkuntza proiektuaren inguruko oinarriekin bat datozen,

ikastetxeko erabakiak babesten dituzten, seme-alabekin ikasketez hitz egiten duten, eskolaz kanpoko jarduerak eta osagarriak babesten dituzten, ikasketetan autonomia eta ardurua sustatzen duten, ordenagailu zein mugikorren erabilera arduratsua sustatzen duten eta etxean ikasketa klima sustatzen ote duten galdetu zaie.

Laugarren aldagaian, ikastetxearekin eta familiarekin poztasuna eta pertenezia zentzuarekin zerikusia duten galderak egin zaizkie.

Azkenik; bosgarren aldagaian “itxaropenak eta familien inplikazioa seme-alaben arrakastan”, esperotako ikasketa maila altuenaren eta familien inplikazio aktiboaren inguruan galdetu zaie.

Behin galderak eginak eta erantzunak jasota, emaitzak atera eta aztertu dituzte eta horietatik emaitzak atera dituzte grafikoaren bidez, HH, LH eta DBH ezberdinduz eta ikastetxe publiko eta itundutako ikastetxeak ezberdinduz.

Esate baterako 1.go aldagaian, HHko komunikazioa hezkuntza etapa ezberdinetan handiagoa dela aztertu dute LH eta DBHn baino. Bestalde, ikastetxe motaren arabera komunikazioari dagokionez ikastetxe publikoetan komunikazioa txikiagoa da itundutako ikastetxeetan baino.

Familien eta eskolaren arteko harremanaren garrantzia aztertzeke nire kasuan ere eta Nafarroako eredia jarraituz nire inkesta propioa eratu dut kategoria ezberdinez osatuta eta bertatik ateratako taulak eta grafikoak aztertutako eskolaren inguruko egoera eta ondorioak ateratzeko balio izan dit.

- Parte hartzearen garrantzia

Aurretik aipatu dugun bezala, familia eta ikastetxearen arteko erlazioa aztertzeke kontuan eduki behar ditugu azken urteotan familiak jasandako aldaketa ezberdinak; hau da, urteetan familiak izandako bilakaera zein transformazio bere estrukturan eta erlazioetan. Hori dela eta, familia mota berriak sortu dira eta baita familiaren barneko antolakuntza berreraiki egin da aldaketa hauen ondorioz. Jarraian, gaur egun familia eta ikastetxearen arteko harremana zelakoa den aztertuko dugu eta harreman honek dakartzan onurak baita harreman hauek sortzea zailtzen dituzten faktoreak.

Ikastetxeak eta are gehiago irakasleek, umeen familien elkarlana behar dute ikasleen ezaugarriak ezagutzeko eta horrela haien eskolarekiko egokitzapenean esku hartu eta laguntzeko. Gainera, ikasleen gurasoen parte hartzea funtsezkoa da kalitatezko hezkuntza jasotzeko; izan ere, familiaren itxaropenak, laguntzak, familiak ezartzen dituen ikas giroak, diziplina metodoak ... bezalako faktoreek seme-alaben ikas kalitatea hobetzen laguntzen dute.

Ikasleen emaitzak, familien parte hartze eta laguntzarekin hobetu egiten dute eta horrez gain, ikastetxearen hobekuntzan ere eragina du: “Familiek nahitaezko rol bat jokatzen dute ikasleen lorpen mailan eta ikasleen emaitzak eraginkorragoak izaten dira familiekin elkarlanean egiten badute. Laguntza etxean garrantzitsua baldin bada, are garrantzitsuagoa da etxetik kanpo garatu beharreko jarduerak aurrera eramaterako orduan. Honen ondorio da, inplikazio honek ikas komunitatea hobetzen laguntzen duela” (Bolívar, 2006).

Kalitatezko hezkuntza bat jaso ahal izateko beharrezko da; beraz, umeak dituen bi agente sozializatzaile garrantzitsuenen elkarlana eta parte hartzea; familia eta eskola. Bien helburua bera da: umearen garapen integrala. Hala ere, bi kontestu hauek oso ezberdinak dira eta beharrezkoa da hezkuntzaren aldetik biak konektatzea.

Familiak eta irakasleak ez direnean ados jartzen umeek jarraitu beharreko hezkuntza irizpideekin aukera gehiago daude ikas/irakas prozesuak errendimendu txikiagoarekin aurrera eramateko. Hala ere, familiak ikastetxeko jardueretan inplikatzen direnean umeak motibatu egiten dira eta horrek ondorio positiboak dakartza.

Bi kontestuen arteko erlazioak positiboak direnean ikasleen errendimendu maila hobetzen dela argi dago; baina ez hori bakarrik, ikasleengan jarrera eta portaera positiboak garatzen laguntzen diete. Esate baterako, autoestimua handitu egiten da, motibazioa eta segurtasunak gora egiten du eta ikastetxearekiko ikuspegi positiboa sortzen dute.

Behar bereziak dituzten ikasleak daudenean, familia-eskola arteko erlazioa ezinbestekoa da. Umearen inguruan profesional askok lan egiten dute: irakasle, orientatzaile, psikopedagogoak ... eta hauen arteko koordinazioa eta komunikazioa beraien artean eta zer esanik ez, familiarekiko funtsezkoa da laguntzak, irizpideak, egokitzapenak ... zehazteko.

Ikusi dugun moduan, gurasoen parte hartzea bere seme-alaben hezkuntza kalitatea hobetze aldera ezinbestekoa da; izan ere, zenbait faktorek ikasleen ikaskuntza prozesua arautzen dute. Jarraian, parte hartze honek dakartzan zenbait onura eta parte hartze hau zailtzen duten zenbait faktore ikusiko ditugu.

- Parte hartzearen onurak

Familiak ikas komunitatean sartzen direnean eta ikastetxearekin harremanetan jartzen direnean bere seme-alaben garapen integrala lortze aldera hainbat dira lortzen diren ondorio positiboak. Baina, ondorio hauek, ikasleentzat ez ezik, irakasle eta gurasoentzat ere badira.

- Ikasleentzako onurak
 - Nota hobeak
 - Ikastetxeko jardueretik jarrera positiboagoa
 - Autoestimua handitu
 - Etxerako lanak maiztasunez egitea eta iraunkortasun akademikoa
 - Gelako jardueretan parte hartzea
 - Ikasketak bertan behera lagatzeko aukerak jaitea
 - Bizitzarako baliagarriak izango zaizkion baloreak, arauak eta ohiturak garatzea
 - Arauak eta erantzukizunak barneratzea

- Irakasleentzako onurak
 - Zuzendaritzatik beraien irakasle lana positiboki baloratzea
 - Asebetetze pertsonala
 - Gurasoetik harreman estuagoa
 - Pertsonetik eta irakaskuntzaretik gaitasunak garatzea
 - Konpromisu handiagoa irakaskuntzan

- Gurasoentzako onurak
 - Beraien eraginkortasuna hobetzen du guraso bezala
 - Bere seme-alabekiko harremana estutzen da, baita ikastetxearekiko ere
 - Ikastetxeko irakaskuntza programekiko ulermena hobetzen da
 - Bere umeen ikaskuntzaren gaineko rola hobetzen da
 - Guraso gisa bere gaitasunak hobetzen dira
 - Seme-alabekiko komunikazioa hobetu egiten da eta bere ikasketekiko ere.

Gurasoek bere seme-alaben irakaskuntzan parte hartzeko hainbat modu daude. Jarraian bi bloketan banatuko dugu gurasoek parte hartzeko dituzten aukerak bere seme-alaben ikas komunitatean: ikasgelan eta ikastetxean (Maestre, 2009).

- **Ikasgelari dagokionez:** Familiek ikasgelan hainbat modutan parte har dezakete:
 - **Irakasleekin bilerak:** Irakasleek gurasoekin kontaktuan egoteko daukaten tresnarik aproposena da. Modu honetan bai guraso zein irakasleek informazioa pasa ahal diete

bata besteari eta planteamendu ezberdinak egin umearen ikaskuntzari dagokionez. Horrez gain, zenbait alderdiren inguruan beraien iritziak adierazi dezakete eta bien arteko erlazioa aberastu.

- **Etxeko lanetan lagundu:** Gurasoek etxetik informazioa, materiala ... bilatzen lagundu dezakete beren seme-alabei baita bere lanetan orientatu, laguntza eman ...
- **Ikastetxeko irteeretara laguntzea:** Gurasoek, ikastetxetik kanpo egiten diren irteeretan lagundu dezakete.
- **Gelako bileretan parte hartu:** Guraso eta irakasleen arteko bilerak dira informazioa emateko ikasleen ikaskuntza prozesuaren inguruan, ekintza ezberdinen inguruan, hezkuntza irizpide ezberdinen inguruan ...
- **Jai, ospakizun, tailer ezberdinak:** Eskolak proposatzen dituen tailerrak, Gabonetako ospakizunak, Aratusteak ... bezalako ospakizunek guraso eta irakasleen arteko topaketarako aukera ematen du eskola ordutegitik kanpo. Modu honetan elkar hobeto ezagutzeko aukera daukate bi alderdiek.

○ **Ikastetxeari dagokionez:**

- **Eskola Kontseilua:** Eskola Kontseiluaren betebeharren artean ikaskuntza proiektuak adostea eta ebaluatzea, parte hartzeko arauak, autonomia eta ikastetxeen gobernuak, urteko programaketa adostu eta ebaluatzea ... bezalako funtzioak aurkitu ditzakegu. Modu honetan, gurasoak haien seme-alaben ikaskuntza prozesuaren berri jakingo dute eta ahal duten neurrian hori hobetzen lagundu.
- **AMPA (Guraso elkarteak):** AMPA-k elkarte parte-hartzaileak dira gurasoen eskubideak aldarrikatzen dituztenak. Bere helburuak, gurasoen eskubideak defendatzea (beraien seme-alabekin zerikusia duten neurrian), eskola hobetzeko lan egin, ikastetxearekiko parte hartzea hobetzea, ikastetxeko gestioan laguntzea ... dira.

- Parte hartzeko zailtasunak

Bi agente sozializatzaile hauen arteko interakzioa beharrezkoa da eta bata bestea gabe ezin dute ondo funtzionatu. Hala ere; batzuetan, zenbait zailtasun aurkitzen dira edota ikuspuntu ezberdinak dituzte eta zaila izaten da akordio batera heltzea.

Familiak, ez du beti jakintza nahikorik bere seme-alabei laguntzeko, ez du parte hartu nahi, interes edo motibazio falta, ezintasunak erakutsi ditzake beraien lanagatik edo bizi egoeragatik. Zenbait gurasok ez dute parte hartzen ez dutelako eskolako funtzionamendua zelakoa den ezagutzen, familiako baloreak eta eskolakoak ezberdinak izan daitezke ...

Zenbaitetan, gurasoak alde batera geratzea erabakitzen dute, ikas komunitatean parte hartu beharrean, beraien erantzukizuna ez dela adieraziz. Parte hartze eta inplikazio falta hau askotan, parte hartzeko egin dezaketen jardueren inguruko ezjakintasunarekin loturik doa; baita, jardueren inguruko informazio, formazio eta denbora faltarekin (Díaz, 2014).

Komunikazioan zentratuz, ikastetxean familiek eduki dezaketen arazoengatik aztertu da Garretaren (2014) testuan. Bertan, gurasoen partetik dagoen interes faltari, irakasleak eskatzen duena ez ulertzeari, hezkuntza sistema behar beste ez ezagutzeari ... leporatzen diote gehienek parte hartzeko eta komunikazio emankor bat sortzeko zailtasuna.

Bertan jasotako inkestetan, irakasleek interes faltari eta familian maila kultural baxuari leporatzen diote gehien bat familia-eskolaren parte hartze eta komunikazio faltaren zailtasuna eta ikastetxeko zuzendaritzan; berriz, denbora faltari eta hezkuntza sistemaren ezjakintasunari. AMPA-ko partaideek balorazio honekin ados egon arren, garrantzia kentzen diote interes faltari eta zailtasun kulturalen ideia indartzen dute (Garreta, 2014).

Ikusi dugunez, zailtasunak era askotarikoak izan daitezke, kontuan hartu behar dugu familia bakoitza eta beraien egoera ezberdinak ere; izan ere, familia bakoitzak zailtasunak eduki ditzake modu batekoak zein besteak irakasleekin harremanak ezartzeko.

4. HELBURUAK

Gradu Amaierako Lan honen bitartez, helburu batzuk lortu nahi dira. Helburuok, erlazioa dute jorratuko den alderdi teorikoarekin (marko teorikoa) eta alderdi praktikoarekin (eskoletara pasatako inkesta eta bertatik ateratako emaitza, ondorio zein hobekuntza proposamenak). Helburu horiek honako hauek izango dira:

- GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURU NAGUSIAK
 - Familiek ikastetxeetan duten parte hartzea aztertzea, horren garrantziaz kontzientzia hartzeko eta hobekuntza proposamenak eratzeko.
 - Familiak eta ikastetxeak bata bestearen parte hartzeari buruz duten ikuskera eta honen inguruan dituzten beharrak ezagutu eta aztertzea.
 - Familiek parte hartzearen inguruan duten interesak eta zailtasunak ezagutzea.
 - Tutoreen iritzia ezagutzea familien parte hartzearen inguruan.

- **GRADU AMAIERAKO LANAREN HELBURU ESPEZIFIKOAK**

- Familien rolak hezkuntzan duen garrantziaz eta beraien parte hartzeak ikas komunitatean umeen heziketari ekarri ditzakeen onurak ezagutzea.
- Familien parte hartzea eragozten duten arazoak zeintzuk diren ezagutzea.
- Ikastetxean izandako esperientzietatik eta alderdi praktikoan ateratako datuei esker hobekuntza proposamenak ateratzea familien parte hartzeari mesede egingo diotenak.

5. METODOA

Jarraian eginiko ikerketa, inkesta bidezko metodologia bat erabiliz egin da. Metodo honekin, beraien seme-alaben ikastetxeetan familiek duten parte hartzea ezagutu eta aztertzea da. Metodologia hau oso eraginkorra da ikasleen familiei dagokien errealitatea aztertzerako orduan

- **TESTUINGURUA**

Ikerketa Eibarko ikastetxe batean aurrera eramán da, “La Salle Isasi” izeneko ikastetxe kontzertatu batean. Ikastetxea, 500 ikasle inguruk eta 40 irakasle eta hezitzaile inguruk osatzen dute; HH eta LH artean. Gainera, LH-ko eskaintzan maila bakoitzeko bi klase dira. Eskolaren ingurune fisikoari erreparatuta, ikastetxea udalerriko erdiguneko kale batean dago, etxe eta saltoki ezberdinak aurkitzen dira bere inguruan. Eibarren hainbat ikastetxe publiko daude, hala nola, Sansaburu (0-5 urte arte), Iturburu (5-12 urte arte), San Andres (0-12 urte arte), Amaña Ikastetxea (0-12 urte arte), Itzio (12-16 urte arte), Mogel Isasi (12-16 urte arte), Eibar-Ermua unibertsitatea (16-18 urte arte) eta Urki (0-12 urte arte). Bestalde, bi ikastetxe kontzertatu erlijioso daude; Alde batetik, Aldatze (0-18 urte arte) eta bestetik, La Salle (La Salle Isasi 0-12 urte arte eta La Salle Azitain 12-18 urte arte).

Ingurune sozio-ekonomikoari dagokionez, Eibarren biztanleriaren hazkunde handia gertatu zen XX. mendean zehar Gipuzkoako garapen ekonomikoak sortutako eskulan eskariaren ondorioz. 2014. urtean 30.000 biztanle inguru zituen udalerririk, horietako asko etorkinak, azken urteotan etorkinen kopuruak gora egin du. Eibarko immigrazioa eta aniztasuna kudeatzeko II. planaren (2012-2016) arabera, gaur egun biztanleriaren %6,43 etorkinak osatzen dute. Industriak (batez ere armagintzak) izugarritzko garrantzia izan du urteetan zehar herrian, baina zerbitzuek garrantzi nabaria hartu dute urteetan zehar.

- PROZEDURA

Ikerketa hau aurrera eraman ahal izateko eta ikastetxean familien parte hartzeak duen garrantzia aztertu ostean, helburua zenbait hobekuntza proposamen egitea izan zen. Horretarako, lehenik eta behin, egoera ezagutzea ezinbestekoa zen, horregatik egin da inkesta ikastetxean.

- Lagina

Ikerketa hau, La Salle Isasi ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 12 gelatan (1. Mailatik 6. Mailara, 2 gela maila bakoitzeko) burutu da; 300 familia inguru, eta gela bakoitzeko tutoreei ere egin zaie ikerketa (12 tutore). Inkestari erantzun diotenak honakoak izan dira: alde batetik, ikastetxeko Lehen Hezkuntzako ikasketak aurrera eramaten ari diren ikasleen familiak, 76 gurasok erantzun diotenak galdetegiari; eta bestetik, ikastetxeko ikasleen tutoreak, 5ek erantzun diotenak galdetegiari.

Lagina; beraz, honela geratzen da: 64 ama (%84,2), 8 aita (%10,5) eta gainontzeko 4 parte-hartzaileak biok batera; hau da, aita eta ama batera (%5,3).

Tutoreen parte hartzeari dagokionez, 5 tutorek erantzun dute galdetegiari (%41,6) eta jarraian agertzen den taulan “**1. Taula**” adierazten dira beraien ezaugarriak:

1. Taula. Tutoreen ezaugarriak			
	Maila	Ikasle kopurua	Urteak ikastetxean
1. tutorea	6. Maila	26	4 edo gehiago
2. tutorea	4. Maila	28	4 edo gehiago
3. tutorea	3. Maila	25	3
4. tutorea	6. Maila	25	4 edo gehiago
5. tutorea	2. Maila	25	2
Barruetabeña, 2020			

- Informazio jasotzeko baliabidea

Datuak jasotzeko erabilitako baliabidea galdetegi bat izan da, “Google Formular” baten bidez; non, ikastetxean ikasten duten ikasleen familiei eta ikasleen tutoreei pasatu zaien, familien parte hartzearen inguruan informazioa jasotzeko.

Aurretik aipatu bezala, informazioa lortzeko aburuz bi galdetegi sortu dira; bata ikastetxeko ikasleen familiek erantzuteko eta bestea ikasleen tutoreek erantzuteko. Familientzako galdetegia (**1.go eranskina**) 34 galderaz osatuta dago. Bertan, informazio orokorra, etxeko egoera, ikastetxearekiko erlazioa eta iritzi pertsonalaren inguruko galderak agertzen dira. Tutoreentzako galdetegia (**2. Eranskina**) ere 34 galderaz osatuta dago eta bertan, datu orokorrak, gurasoekiko harremana, iritzi pertsonala eta harremana hobetzeko proposamenak agertzen dira.

Informazio jasotzeko; lehenik eta behin, ikastetxera (La Salle Isasi) gerturatu eta bertako zuzendariarekin hitz egin nuen; izan ere, aurreko ikasturtean Practicum II-a bertan burutu nuen eta erlazio ona nuen ikastetxearekin. Beraz, zuzendariari azaldu ostean nire helburua berak zuzendaritza zentroarekin hitz egin zuen lehenik eta behin ideia proposatzeko eta beraien oniritzia jaso ostean, gurasoentzako eta tutoreentzako gutun bat idatzi nuen (**3. Eranskina**) inkestaren helburua azalduz, hura aurrera eramateko baimena eskatuz eta alde zuzenetik guztien parte hartzea eskertuz. Inkesta familiei eta tutoreei helarazteko, zuzendaria eskaini zen, nik inkesta zuzendariari pasatuz eta berak guraso eta tutore guztien korreora bidaliz.



6. EMAITZAK

Inkestak aurrera eramateko, erantzun bakoitza Google Formular baten bidez bidaltzen da eta guztiak batera gordetzen dira programa horretan. Jasotako erantzunekin, grafikoak sortu dira galdera bakoitzaren inguruan; modu honetan, konparazioak eta kalkuluak egitea ahalbidetzen du eta ikerketari fidagarritasun handiagoa ematen dio. Aipatutako grafikoak, eranskinetan atxikita egongo dira.

Jarraian erantzunak aztertuko dira eta horretarako bi multzo nagusitan sailkatuko dira: alde batetik familiei helarazitako inkesten erantzunen analisia egingo da eta bestetik, tutoreen erantzunak aztertuko dira.


- FAMILIAK
 - Inkesta bete dutenen ezaugarriak

Lehenik eta behin, bloke honetan inkesta erantzun dutenen ezaugarriak aztertuko dira. Ikus daiteke, inkesta honi erantzundako kopuru handiena emakumeak direla, konkretuki amak; beraien kopurua, **1. Grafikoa** islatzen denaren arabera, %84,2koa da (inkesta erantzun duten 3/4a baino gehiago) eta gainontzeko ehuneko kopurua edo aitek %10,5 edo aita-amek batera %5,3 osatzen dute. Gainera, erantzun dutenen artean, %72,4ak 2 seme-alaba ditu; %19,7ak seme-alaba bat soilik eta gainontzeko ehunekoak (%7,9) 3 seme-alaba edo gehiago, **2. Grafikoa**. Seme-alaba horien maila nahiko sakabanatuta dago inkesta erantzun dutenen artean; hala ere, kopuru handiena 5. Mailan kokatzen da, **3. Grafikoa**.



Familien parte hartzea ikastetxean, bere lan egoeraz baldintzatuta egon daitekeela planteatu da; izan ere, lan egoerak eragin zuzena du egonkortasun ekonomikoan eta denbora kontuetan. Hori dela eta beraien lan egoeratik galdetzen zaie inkesta bete dutenei eta “**2. Taulan**” agertzen dira erantzunak; non, ikus daitekeen arabera, inkesta bete duten %89,5ak lana dute, bai lanaldi osoko lana edota lanaldi partziala eta %10,5a da lanik ez dutenen kopurua, **4. Grafikoa**.



2. Taula Familien lan egoera		
	Guztira	%
Lanaldi osoko lana	45	59,2
Lanaldi partziala	23	30,3
Lanik ez	8	10,5
Lana dutenen kopurua	68	89,5
Langabetuen kopurua	8	10,5
Barruetabeña, 2020		




Bi alderdiak erreparatuz (zeintzuk erantzun duten galdetegia eta familia bakoitzaren lan egoera), ulertarazi daiteke amak izatea inkesta erantzuten dutenen ehuneko handiena aitek lan egiten dutenaren ondorio dela. “**3. Taulan**” ikus daiteke inkesta erantzun duten ama guztien artean (%84,2), ehuneko handienak lan egiten duela (%73,7) bai lanaldi osoan edo lanaldi partzialean eta ehuneko txiki batek (%10,5) lanik ez duela; hau da, inkesta erantzun duten 64 amaren artean 8k soilik ez dute lanik eta beste 56ak berriz, bai. Aitaren kasuan, inkesta erantzun duten aita guztiek dute lana (%10,5); hala ere, 8 dira inkesta erantzun duten aita; beraz, logikoa da ama gehiagok erantzun dutenez, erantzunak anitzak izatea eta; hortaz, inkesta betetzerako orduan bere lanak ez baldintzatzeak.

3. Taula Familia/Lana erlazioa								
Inkesta bete duena								
Ama			Aita			Biok		
64		%84,2	8		%10,5	4		%5,3
Lan egiten du								
Bai	Partziala	Ez	Bai	Partziala	Ez	Bai	Partziala	Ez
34	22	8	8	0	0	3	1	0
%44,7	%29	%10,5	%10,5	%0	%0	%4	%1,3	%0
Barruetabeña, 2020								


3. Taulan, aztertu dugunaren arabera, familien lan egoerak ez du baldintzatzen inkesta betetzerako orduan; hala ere, **5 eta 6. Grafikoetan** aztertutakoaren arabera, zailtasun handiagoak agertzen dira familien lan egoerak beraien seme-alaben ikaskuntzarekin batera aurrera eramaterako orduan; izan ere, kasu honetan %43,4ak (33 pertsona) adierazten du zailtasunak dituela alderdi horretan. Arrazoi nagusia lan ordutegiarekin dator; bai oso luzeak direlako edota ordutegi ezberdinek baldintzatzen dutelako. Beste zenbaitek, beste familiako kide batzuen zaintza dela eta ezinezkoa dute seme-alaben ikaskuntzarekin batera aurrera eramatea eta beste guztiek arazorik ez dutela edota ordutegiak moldatu ditzaketela diote.



Azkenik, ikus daiteke; **7. Grafikoa**, nola ume kopuru handienak (%81,6) oinez joaten den ikastetxera, bai bakarrik; zein lagun edo gurasoekin. %17,1; aldiz, autoz joaten da eta %1,3 soilik, autobusez.






Familia motari dagokionez, ehuneko kopuru handiena familia biparentalak osatzen du (%81,6), gainerako ehuneko handiena (15,6) familia monoparentalak (ama/aita seme-alabekin) eta gainerako kopurua beste familiako kide bat dute beraien zaintzan, **8. Grafikoa**.





- Ikastetxearekiko erlazioa

2. zati honetan, familia eta ikastetxearen arteko erlazioaren inguruan azterketa sakonago bat egiten da, familiek beren seme-alaben tutorea eta zuzendaria ezagutzen al duten galdetuz, **9 eta 10. Grafikoak**. %100ek tutorea ezagutzen du, &86,8-k; aldiz, ezagutzen du zuzendaria. Horrek esan nahi du, familiek erlazio handiagoa dutela beraien seme-alabekin kontaktuan dauden pertsonekin tutorea bezala eta gutxiago dutela zuzendari zein beste zuzendaritza organo edota irakaslerekin **4. Taula**. Familiek ikastetxearekin erlazionatzen dira bileretara joateko, seme-alaben inguruan informazioa jasotzeko, seme-alaben inguruko arazoren bat dagoenean eta zenbaitetan seme-alabak ikastetxera eramaterakoan, **15. Grafikoa**.




4. Taula Ikastetxeko langileen ezagutza			
Zuzendaria ezagutzen du		Tutorea ezagutzen du	
Bai	Ez	Bai	Ez
66	10	76	0
%86,8	%13,2	%100	%0
Barruetabeña, 2020			



Familien eta tutorearen arteko komunikazioari dagokionez, %96,1ek dio beti joaten direla tutoreak bilera baterako deitzen dionean. Gainontzeko ehunekoak ia beti edo batzuetan joaten direla baieztatzen du, **30. Grafikoa**. Gurasoek bilerak eskatzeari dagokionez; aldiz, %90,8k ez ditu inoiz eskatzen edo batzuetan soilik eskatzen ditu, eta gainontzeko %9,2ak eskatzen ditu tutoretzak beti edo ia beti **31. Grafikoa**.



Bestalde, familiei beren seme-alabek ikastetxeko beste kide batekin arazorik baldin badu zelan erantzuten duten galdetu zaie, **26. Grafikoa**: %77,6ak irakaslearekin hitz egiten duela dio eta %82,9ak berriz, beraien seme-alabarekin hitz egiten duela. %11,8k kide horren gurasoekin hitz egiten du eta gainontzeko ehuneko txikiak ez duela ezer egiten edo ez dela horrelakorik momentuz gertatu aitortzen du. Beraz, ikus daiteke nola behar den kasuetan, familiek irakasleekin hitz egitea erabakitzen dutela nahiz eta beraien parte hartzea ez emateko; baina bai, bere seme-alabekin zerikusia duten gaiak lantzeko.




Ikastetxeak familiei deitzeko arrazoi nagusiak ikasketei buruzko bilerak izaten dira; baina horrez gain, zenbait ikasketa proiektutarako non familien parte hartzea beharrezkoa den, ikastetxeak antolatutako jardueretan parte hartzeko, jai egun zein ospakizunetarako edo ikasle batzuen arteko arazoren baten berri emateko deitzen dituzte familiak, **19. Grafikoa**. Tutoreekin lantzen diren gai nagusiak **32. Grafikoa**, ikaskuntza prozesuaren inguruko jarraipenarekin du zerikusia; horrez gain, ikaslearen garapenaren inguruko aspektuak eta jarrera kontuak ere izaten dira tutoreekin landutako gaiak. Hauek **“5. Taulan”** agertzen dira.





5. Taula Ikastetxearekiko komunikazioa				
Ikastetxeak familiei deitzeko arrazoi nagusiak				
Ikasketa bilerak tutoreekin	Proiektuetan parte hartzeko gonbidapena	Jardueretan parte hartzeko gonbidapena	Jarrera arazoak	Jai egunak / ospakizunak
75	29	27	41	23
%98,7	%38,2	%35,5	%53,9	%30,3
Tutoreekin bileretan lantzen diren gaiak				
Jarrera kontuak	Ikaskuntza prozesuaren jarraipena	Ikaslearen garapenaren inguruan		
18	69	51		
%23,7	%90,8	%67,1		
Barrueta, 2020				

Beraz, ikusi dugu gehien bat, ikasketa bileretara murrizten dela familien komunikazioa ikastetxearekin. Horren inguruan galdetu zaie, **17. Grafikoan**. Irakasleekiko komunikazioari dagokionez, %39,5ek dio txikia dela, %31,5ek ertaina eta %29k handia edo oso handia. Tutoreekiko komunikazioari dagokionez, ehuneko kopuru handienak komunikazio hori ertaina eta handiaren tartean kokatzen dira (%40,8k ertaina eta %38,1k handia). %9,3 txiki batek soilik dio komunikazio hau txikia dela eta %11,8k berriz, oso handia. Azkenik, zuzendaritzarekiko komunikazioari dagokionez, hau da gehienek ehuneko txikienekin adierazitako komunikazioa; %57,9k izan ere, honako hau txikia dela baitio, %23,7k ertaina eta %18,4k soilik dio hau handia edo oso handia dela. Laburbilduz, familien aburuz, nahiko ados


daude beraien komunikazioa irakasleekin orokorrean txikia dela eta are txikiagoa oraindik zuzendaritzarekin; baina, tutoreei dagokienez komunikazio hau handiagoa da.



Familiak orokorrean, inplikazio mugatua dute; are gehiago, gehienek ez dute parte hartzeko beharra sentitzen ikastetxean eta bakarrik behar zehatz bat dagoenean edota ikastetxearen partetik bilera formal baterako deitzen dituztenean parte hartzen dute. Horrez gain, eskola ordutegitik kanpo parte hartzen dute. Akademikoki, bilerak alde batera utziz hauek baitira orokorrean parte hartzeko modurik ugariena, etxeko lanekin laguntzen dute etxean. **22. Grafikoan** agertzen den moduan, %9,2k soilik ez du ia inoiz laguntzen eskolako jardueretan bere seme-alabei. %33,5ek batzuetan laguntzen du eta gainontzeko %55,2ak ia beti edo beti laguntzen du. Eskolako zereginetan laguntzen ez diotenean, **23. Grafikoa**, orokorrean ez dutelako gurasoen laguntzarik behar izaten da (%69,7), beste arrazoietako batzuk denbora falta (%19,7) eta jakintza nahikorik ez izateari atxikitzen zaio (%6,6); baita hizkuntza arazoei, lanari, seme-alaben autonomiari .. baina ehuneko kopuru txikiago batean (%1,3).




Eskolako jarduerak guztiok egiten dituzte normalean; hala ere, egiten ez direnean zelan jokatzeko duten galdetu zaie inkestan eta erantzunak **24. Grafikoan** aztertu dira. Orokorrean seme-alabekin hitz egiten dute gurasoek (%80,3) ulertarazteko honen garrantzia. Horrez gain, zenbaitek (%19,7) errieta botatzeko erabakia hartzen du eta (%6,6) beste ehuneko batek zigortzeko erabakia hartzen du.




- Parte hartze organoak

Inkestaren ondorengo itemetan eskolan parte hartzeko organoen inguruan galdetu zaie. Kasu honetan, eskola kontseiluaz eta guraso elkarteaz galdetu zaie. Hauek parte hartze organoak dira eta honako hauek baloratu eta beraien parte hartzea honakoetan zelakoa den edo zerk eragozten duen ikusteko prestatu dira hurrengo itemak.


Guraso bezala, beraien parte hartzea eskolan zelakoa den baloratzeko eskatu zaie galdetegian, **16. Grafikoa**. Zintzotasunez erantzunda beraien parte hartzea handiegia ez dela ondorioztatu daiteke. Honako hau, beraien arrazoiengatik edo ikastetxeak parte hartzea bultzatzen ez duelako izan daiteke. Ehuneko handienek beraien parte hartzea 1etik 10erako eskala batean 5 eta 8 baten artean kokatzen dute (guztira %71,2). Gainontzeko ehuneko kopurua nahiko sakabanatuta kokatzen da; %11,9 batek kokatzen dute beraien parte hartzea 9/10 batean eta gainontzeko %16,9ak 0/4 baten artean.




Parte hartze hori eragozten dituzten faktoreak familien ustez, **18. Grafikoa**; gehien bat, denbora falta eta ordutegiak moldatzeko ezintasunaren ondorio dira (%75), baita familia askok daukaten parte hartzeko interes falta (%39,5). Beste zenbaitek irakasleen interes faltari atxikitzen diote (%10,5) eta beste zenbaitek familien eta irakasleen arteko konfiantza faltari (%10,5).



Organo hauei dagokionez, %2,6ak soilik ez du AMPA eta Eskola Kontseilua zer diren ezagutzen; hala ere, inkestatuena ehuneko handienak, **34. Grafikoa**, ez du parte hartzen ordutegiagatik (%64,5) edota ez dagoelako interesatua (%14,5). Beste ehuneko txiki batzuek ez dira kapaz ikusten bertan parte hartzeko edo ez dituzte funtzioak ezagutzen eta %13,2ak ez du arazorik ikusten.



AMPA eta Eskola Kontseiluaren ezagutzaz eta bertan duten parte hartzeaz gain hauen lanaren garrantziaren inguruan galdetu zaie, **20. Grafikoa**. Biek egiten duten lanari dagokion erantzunak oso parekoak dira. %9,2 batek dio soilik ez duela honen lanak inolako garrantzirik eta garrantzi txikia duela beste ehuneko txiki batek aldarrikatzen du (%27,7 AMPA eta %26,3 Eskola Kontseilua). Gehienek, hauen lanak garrantzi handia duela dio (%52,6 eta %50). Gainontzeko kopuruak (%10,5 eta %14,5) garrantzi oso handia duela dio hauek betetzen dituzten funtzioak.






Parte hartze organoei dagokionez; nahiz eta familia gehienek ezagutu, ez dute parte hartzeko aukera nahikoak, gehienbat lanaren ondorioz. **“6. Taulan”** emaitza hauek adierazten dira.

Beraz, ondoriozta daiteke lana dela funtsezko faktoreetako bat familiek ikastetxeko organoetan parte ez hartzeko.

6. Taula Parte hartzeko organoak				
Ezagutzen dituzu AMPA eta Eskola Kontseilua zer diren				
Bai			Ez	
%97,4			%2,6	
Parte ez hartzeko arrazoiak/zailtasunak				
Ordutegi arazoak	Interes falta	Ezjakintasuna	Beste batzuk	Zailtasunik ez
%64,5	%14,5	%7,8	%3,9	%14,5
Barruetabeña, 2020				


- Etxeko egoera

Familiei etxeko egoeraren eta beraien seme-alaben ikasketen erabakien inguruan galdetu zaie zenbait item ezberdinetan. **11 eta 12. Grafikoen** arabera, etxean bizitzeko arau batzuk ezarriak dituzte familia gehienek (%98,7) eta beraien seme-alabekin hitz egiten dute beraien egoera familiarraz, eskolakoaz ... (%98,7). Orokorrean, arau hauek bete egiten dira, %31,6ak dio beti betetzen direla etxean bizitzeko arau hauek eta gainontzeko %68,4ak batzuetan betetzen direla dio, **13. Grafikoa**.





Etxean bizitzerako orduan, **29. Grafikoa**, arau batzuk daudela guztiontzako dio ehuneko handi batek (%38,2) ordutegiak, arauak ... ; horrez gain, familien intereserako erabakietan seme-alaben iritzia kontuan hartzen dela dio beste multzo batek (%34,2). %17,1ek dio bakoitzak


bete behar batzuk aurrera eraman behar direla dena ondo joateko eta azken %10,5ek astero hitz egiten dutela dio elkarrekin egoteko eta gauzak batera egiteko.



Ikusten dugu etxean, komunikazioa, ezinbestekoa dela erlazioa ona edukitzeaz gainera, eskolako erabakietan seme-alabei laguntzeko. Familia gehienetan ikusi da, **14. Grafikoa**, etxeke erabakiak bi gurasoen artean hartzen dituztela (%81,6); hala ere, zenbait kasutan bietako batek hartzen ditu. Kasu horietan amak hartzen ditu erabakiak aitak baino sarriago; %13,2-tan amak eta %2,6-tan aitak. Etxeaz gain, seme-alabei dagokionez erabakiak eskola ingurunera ere zabaltzen dira. Eskolako inguruneari dagokion erabakietan; **25. Grafikoa**, ere ehuneko handiengan bi gurasoek batera hartzen dituzte erabakiak baina etxean baino kopuru txikiago batean (%65,8). Kasu honetan amaren ehuneko kopurua asko igotzen da (%31,6) eta aitarena (%2,6). Honako hau gertatzen da seguruenik amak intzidentzia handiagoa daukalako beraien seme-alaben ikastetxearekin, bileretara joanez, eskolara lagunduz ... eta aitak parte hartze handiagoa dute etxean daudenean.




Gurasoek hartzea etxeke eta eskolako erabakiak normala da; izan ere, umeak oso gazteak dira oraindik eta etxeaz gain eskolan jende askoren influentzia jasotzen dute. Horren inguruan; **27. Grafikoa**, galdetu zaie eta kasu gehienetan aita (%94,7) eta ama (%98,7) dira seme-alabei influentzia ezartzen dizkieten pertsonak; hala ere, anai arreba nagusiek (%43,4) eta aitona amonek (%55,3) nahiko influentzia handia ezartzen dizkiete. Horrez gain, osaba-izebek, lagunek, tutoreek, irakasleek ... neurri txikiago batean baina influentzia ezartzen die. Etxean bizikidetzarako datuak "**7. Taulan**" adierazten dira.



7. Taula Etxeko bizikidetzaz							
Etxean bizitzeko arauak daude		Arauak betetzen dira					
Bai	Ez	Beti	Batzuetan	Inoiz			
%98,6	%1,3	%31,6	%68,4	%0			
Influentzia ezartzen dieten pertsonak dira:							
Ama	Aita	Anai arreba	Aiton amona	Beste bat			
%98,7	%94,7	%43,4	%55,3	%16,9			
Zeinek hartzen ditu etxeko erabakiak:				Zeinek hartzen ditu eskolako erabakiak:			
Ama	Aita	Biok	Beste batek	Ama	Aita	Biok	Beste batek
%13,2	%2,6	%81,6	%2,6	%31,6	%2,6	%65,8	%0
Barruetabeña, 2020							

Beraz, oso garrantzitsua da guraso moduan seme-alabekin jokatzeko modua. Hori dela eta garrantzia eman zaio item honi; **28. Grafikoa**, gurasoaren papera funtsezkoa baita seme-alaben etapa honetan. Guraso askok beraien seme-alabek dituzten jarrera positiboak goraiatzeko dituzte (%90,8). Hau oso garrantzitsua da; izan ere, alderdi positiboak goraiatzeko beraien autoestimari mesede egiten dio eta honek seme-alabek ikaskuntza prozesuan aurrera egiten laguntzen die eta konfiantza handitzeak ere. Horrez gain, %42,1ek haserretu edo oihukatu egiten die. Kontu handia eduki behar da zein erreakzio hartzen diren, umeak negatiboki hartzen baditu ondorioak ez baitira oso positiboak izango; hala ere, jarrera negatiboak zuzendu egin behar dira eta argi eduki behar dute arauak bete ezean ondorioak izango dituztela.




- Iritzi pertsonala


Azkenik, beraien iritzia ematera bultzatuko dien zenbait item pasatu zaizkie. Lehenik eta behin;

33. Grafikoa, 1etik 10rako eskala batean (1 partaide zen txikiena eta 10 handiena beraien ustez zein mailatan kokatzen diren aipatzeko zenbait galdera pasatu zaie. Ikastetxeko partaide sentitzen diren %67 1-5 artean kokatzen dira; nabaria da guraso gehienak ez direla ikastetxearen parte sentitzen eta hori bultzatu beharrezko benetako alderdi bat da. %17 6-8 artean kokatzen dira eta %16 9-10 artean. Hurrengo galdera, ikastetxeak ekitaldi batean parte hartzen badu parte hartzen duten edo ikusten saiatzen diren izan da. Kasu honetan, erantzunak apur bat parekatuago izan dira; hala ere, 1-5 artean %52k baloratzen du. %27,6k 6-8 artean kokatzen du bere parte hartzea ekitaldietan eta %19,8k 9-10 artean.

Hirugarrenik, ia gustura dauden beraien seme-alabek jasotzen duten hezkuntzarekin ikastetxean galdetu zaie eta kasu honetan, askoz altuagoak izan dira erantzun positiboak negatiboak baino. 1-5 artean %38 kokatzen da, %32,9 6-8 artean eta gainontzeko %29,1ak 9 eta 10 artean. Azkenengo galdera, ia beraien seme-alaben etorkizuna ikastetxean jasotzen duen hezkuntza prozesuak baldintzatua egongo ote den izan da. Kasu honetan ere, erantzun positiboak negatiboak baino ugariagoak izan dira, %35,5ek 1-5 artean kokatzen du; %31,5ek 6-8 artean eta %33k 9-10 artean.






Inkestarekin bukatzeko; **21. Grafikoan**, ze jarduera edo ekintza planteatu beharko liratekeen ikastetxearen partetik familiek bertan parte hartzeko kontzientzia har dezaten galdetu zaie. Gehienek, irakasle eta gurasoen arteko erlazioa hobetzeko jarduera ezberdinak planteatzea (%50) eta denbora zehatz batean behin ikasleen gurasoei galdetegiak helaraztearen alde (%43,4) agertu dira. Horrez gain, %27,6k uste du kurtso hasieran irakasle eta gurasoen arteko bilera bat egitea komenigarria dela bien arteko erlazioa eragozten duten faktoreak zeintzuk diren aurkitu eta soluzioak bilatzeko. Beste %23,7k dio, gurasoei helarazi nahi zaien mezuak heldu direla ziurtatu behar direla, korreo elektronikoen, ikastetxeko sarrera eta irteeretan, umeen... bidez eta azkenik, %14,5ek AMPA-ren aldetik kurtso hasieran gelan lantzeko gai interesgarrii buruzko zerrenda bat egin behar dela uste du.



- TUTOREAK

- Familiekin bilerak



Aurretik; 1 Taulan, tutoreen ezaugarriak adierazi dira, ikastetxean daramatzan urteak, zein kurtsotako tutorea den bakoitza eta zenbat ikasle dituzten, **1, 2 eta 3. Grafikoak**.



Inkestan aztertzen den lehenengo itemak (**4. Grafikotik 10.ra**), familientzako bileren antolaketari egiten dio erreferentzia eta hauek "**8. Taulan**" biltzen dira. Tutore guztiek antolatu dituzte bilerak bai orokorrak baita indibidualak ere, guztietan; behintzat, informazio orokorra emateko helburuarekin.

Horrez gain, orokorrean zein joaten den bileretara galderari, 5 tutoreek ados jartzen dira amak joaten direla orokorrean bileretara esatean; hala ere, 2 tutorek aita batzuk ere joaten direla

diote. Guraso guztiak joaten ote diren bilera mota hauetara galdetu zaienean, tutoreek iritzi ezberdinak agerrarazi dituzte. 3 tutorek ez direla familia guztiak joaten baieztatzen dute eta beste 2 tutoreek baietz.







5. ZENBAT?

5 respuestas



- Pertsonala 1 edo 2, ikasle eta beharraren arabera. Orokorra 1.
- Guraso bakoitzarekin bat gutxienez eta beste bat orokorra
- Bat orokorra eta beste bat bakarka.
- Guraso guztiekin bat gutxienez
- 2

Barruetabeña, 2020




Hala ere, honen gakoa ez da izango familia guztiak joaten diren edo ez jakitea; baizik eta, zergatik ez diren joaten edota familia berdinak izaten diren beti falta izaten direnak. Taldeko bileretan normalagoa izango da familiaren bat ezin joatea guztiontzat egokia den ordutegia zehaztea oso zaila izaten baita.

Tutoreak bat datoz familiak beharrezkoa denean tutoretzak eskatzen dituztela esatean. 3-k diote askotan eskatzen dituztela eta 2-k noizean behin eskatzen dituztela. Horrez gain, 4 tutorek baieztatzen dute familiak askotan edo noizean behin joaten direla tutoretzetara eta soilik tutore batek dio gutxitan joaten direla familiak tutoretzetara (**20, 21. Grafikoak**).



8. Taula Gurasoekin bilerak				
	Antolatutako bilera kopurua	Arrazoiak	Zein joaten da bileretara	Guztiak joaten dira
1. Tutorea	2	-Informazio orokorra -Jarrera arazoak -Jarduera espezifikoak	Gehienak amak eta zenbait aita	Ez
2. Tutorea	Orokorra 1 Indibiduala 1	-Informazio orokorra -Jarduera espezifikoak -Ikaslearen martxa	Normalean biak edo ama bakarrik	Bai
3. Tutorea	Indibiduala 1/2 Orokorra 1	-Informazio orokorra -Jarrera arazoak	Ama	Ez
4. Tutorea	Indibidual 1 gutxienez	-Informazio orokorra -Jarrera arazoak	Ama	Bai
5. Tutorea	Orokorra 1 Indibiduala 1 gutxienez	-Informazio orokorra -Seme-alaben informazioa -Jarrera arazoak	Ama	Ez
Barruetabeña, 2020				




Tutore guztiek eduki dituzte elkarriketa indibidualak ikasle baten ikasketa garapenaren inguruan eta beraien jarreraren inguruan (**34. Grafikoa**). Horrez gain gurasoekin bilera formalak eta informalak ere eduki dituzte zenbait tutorek.



Nabaria da orokorrean guraso gehienak joaten direla bilera horietara nahiz eta gehienetan amak izan. Bilerak horietan kurtsoko informazio orokorra, jarduerak espezifikotarako gonbitea, seme-alaben informazio orokorra eta haien martxa ikasturtean ... bezalako informazioak jasotzen dira. Hala ere, hau ez da behar bezain bestekoa, familien parte hartzeak gehiago behar duelako, kontaktu ugariago bat, haien seme-alabei ikas prozesuan onurak ekarriko dietenak.

- Bileraz kanpoko komunikazioa

Tutoreek familiekin izaten duten komunikazioari dagokionez, 5 tutoreak ados jartzen dira familiei jarduerak ezberdinen berri informatzen dietela eta 5ak agenda idatzia edota korreo elektronikoa erabiltzen dutela horretarako. Tutore guztiek erabiltzen dute agenda edo bestelakoak familiekin komunikaturik egoteko, arazorik balego, oharrak bidaltzeko ... umearen beharretan oinarritzen direnak (**11tik 14. Grafikora**).




14. KASU HONETAN ZERTAN OINARRITZEN DA?

5 respuestas

- Umearen beharretan oinarritzen da
- Agendak eta korreo elektronikoak
- Komunikatuak egoteko.
- Agendak eta emaila
- Arazo edo elkarrizketak egiteko oharra

Barruetabeña, 2020

Sistema hauez gain, 4 tutore bat datoz eskolako sarrera/irteeretan hizketaldiak edukitzen dituztela gurasoekin eta bertan ikasleen gorabeherak partekatzen dira, egun horretako gertaeraren bat, arazoak, baita gai informalak ere (**22, 23. Grafikoa**).



23. ZER GAI JORRATZEN DITUZU?

5 respuestas

- Gai informalak
- Ikasleen gorabeherak
- Normalean arazoak, beraiek zuzentzen dira guregana.
- Ez
- Egun horretan gertaeraren bat dagoela

Barruetabeña, 2020




Familia eta ikastetxearen arteko komunikazioa korreoz, telefonoz, ikasleen oharren bidez ematen dela ados daude 5 tutoreak eta horrez gain zenbaitek (3) zuzenean ere ematen dela baieztatzen dute. Komunikazio hau orokorrean tutoretzetarako deialdiak egiteko izaten dira eta bertan gehiago sakontzen da ikasketa prozesuaren jarraipenaren, jarrera arazoaren eta garapen pertsonal eta sozialarekin zerikusia duten gaien inguruan. Tutoretza hauek oso baliagarriak izaten dira familiei ikasleen errealitatea ikusarazteko balio duelako eta hobekuntza proposamenak martxan jartzen direlako ikasleen ikasketa prozesuetan. Hala ere, tutoretza hauetan zenbait zailtasun ikusten dituzte tutoreek; izan ere, askotan, eginkizun familiarrek eta lanak bileretara joatea eragozten die eta batzuei kostatu egiten zaie bere umearen akatsak onartzea (**24-27. Grafikoak**).

24. FAMILIEKIN DITUZUN TUTORETZAK BALIAGARRIAK IZATEN DIRA? ZERGATIK?


5 respuestas

- Normalean bai. Hala ere badaude kasu puntualak, zeinetan, ez dute ikusi nahi dagoen zailtasuna eta ez diote horri erantzun bat ematen.
- Bai, familiei ikasleen errealitateak ikustarazteko balio du
- Gurasoen arabera.
- Orokorrean bai. Gelan ikusitako jakinarazten zaie
- Bai, ikaslearen martxa ezagutzen dutelako eta hobekuntzak jartzen ditugu bere ikasketa prozesuan

Barrueta-beña, 2020




Tutoreek, beraien bizipenetatik abiatuta, familien komunikazioa tutoreekiko gehienbat ertaina dela ondorioztatzen dute, baita zuzendaritzarekiko ere. Irakasleekiko komunikazioari dagokionez; aldiz, iritzi ezberdinak daude. Bik txikia dela diote, beste bik ertaina eta azkenak; berriz, handia. Ikusi dezakegu azken finean, tutoreek beren errealitatea gurasoekiko definitzerako orduan nahiko antzeko egoerak bizi dituztela eta ikastetxeko zuzendaritzari dagokionez ere iritzi berdina dutela, baina irakasleei dagokionez errealitate ezberdinak sumatzen dituztela (**29. Grafikoa**).



- Iritzi pertsonalak

Behar beste parte hartzen al dute familiek galderari, tutoreak ez dira guztiz ados jartzen, baina beraien kalifikazioak ez dira altuegiak. Bi tutorek 7 bat jartzen diote familien parte hartzeari, beste batek 3 bat, beste tutore batek 4 bat eta azkenak 5 bat. Beraz, erantzun nahiko ezberdinak ditugu; hala ere, erantzun guztiak 3 eta 7 artean daude, ondoriozta dezakegu; hortaz, parte hartze hori handiagoa izan zitekeela (**28. Grafikoa**).



Hori dela eta zenbait item planteatu dira tutoreek beraien iritzi pertsonalak emateko gurasoen parte hartzearen inguruan. Orokorrean, tutoreak bat datoz gurasoen parte hartzea nahiko eskasa dela esatean (**15. Grafikoa**). Ados datoz baita ere, orokorrean ikastetxeak gurasoen parte hartzea neurri handi batean bultzatzen dutela esatean, nahiz eta kontrako iritziren bat egon (**16. Grafikoa**).

15. ZELAKOA USTE DUZU DELA GURASOEN PARTE HARTZEA IKASTETXEAN?

5 respuestas

- Gutxikoa
- Orokorrean nahiko eskaxa
- Oso eskasa, ez dute ardurarik nahi.
- Orokorrean ez oso altua
- Batzuk oso iplikatuak eta beste batzuk ezer ez dutena egiten

Barruetabeña, 2020


16. ZEIN NEURRITAN USTE DUZU IKASTETXEAK GURASOEN PARTE HARTZEA BULTZATZEN DUELA?

5 respuestas

- Neurri handi batean
- Behar den baino gutxiago
- Urteero.
- Nahiko altua
- Asko saiatzen da

Barruetabeña, 2020

Argi dutena tutore guztiek familien parte hartzea funtsezko faktore bat dela ikaskuntza prozesurako (**17. Grafikoa**). Parte hartze hori funtsezkoa izateko arrazoiak eta tutoreen aburuz ikastetxeak planteatu beharko lituzkeen zenbait jarduerak “**9. Taulan**” adierazten dira (**18 eta 31. Grafikoak**):



18. ZERGATIK?

5 respuestas



- Eskola eta familiak bat egin behar dugulako lan umearen ongizaterako.
- Ikasleengan eragin handiena duten pertsonak direlako
- Komunitate eskolarraren parte direlako.
- Elkarlana beharrezkoa delako
- Ikasketen partaide bihurtzen direlako

Barruetabeña, 2020

9. Taula Familien parte hartzea	
Parte hartzea funtsezkoa izateko arrazoiak	Familiak parte hartzeko jarduerak
Ikasketen partaide bihurtzen direlako	Irakasle eta gurasoen erlazioa hobetzeko jarduera ezberdinak planteatzea
Ikastetxeko komunitatearen parte direlako	Kurto hasieran irakasle eta gurasoen arteko bilera bat egitea bien arteko erlazioa eragozten duten faktoreak aurkitu eta soluzioak bilatzeko
Eskolak eta familiak batera lan egin behar dutelako umearen ongizaterako	AMPA-ren aldetik kurto hasieran gelan lantzeko gaiei buruz zerrenda bat egitea
Elkarlana beharrezkoa delako	Gurasoei helarazi nahi zaien mezuak heldu direla ziurtatzea
Ikasleengan eragin handiena duten pertsonak direlako	
Barruetabeña, 2020	

Ikus daiteke nola ugariak diren familien parte hartzea funtsezkoa bihurtzen duten arrazoiak eta baita ikastetxeak planteatu beharko lituzkeen jarduerak familiei parte hartzera bultzatzeko. Argi dago familien parte hartzea funtsezko faktore bat dela hezkuntzan; hala ere, parte hartzea ez da mugatu behar informazioa jaso eta tutoretzeara joatera baizik eta bien kolaborazioa behar duten jarduerak aurrera eramane behar dira eskolako errendimendua handitze aldera.

Arrazoiak ugariak diren arren, badaude ikastetxean familien parte hartzeko orduan agertzen diren zenbait zailtasun (**30 eta 32. Grafikoak**). Tutore guztiek familien ikastetxean parte hartzeko interes faltari egokitzen diete zailtasun horiek eta batzuek gainera, denbora falta eta ordutegiak moldatzeko ezintasunari ere. Horrez gain, ikastetxeak planteatzen dituen jardueretan parte hartzea ez zaie interesatzen familiei eta bizitza laboralak ere zailtasunak agerrarazten dituzte tutoreen ustez.



Argi dago bizitza laboralak zailtasun ugari agerrarazi ditzakeela familiek ikastetxean parte hartzeko orduan; hala ere, zailtasun horietaz gain familiek duten interes faltari ere leporatzen zaio harreman falta hori ikastetxe eta familiaren artean. “Gogoia ez dagoenean zaila egiten da, ezin baita inor behartu, normalean badakizu nork hartuko duen parte eta nork ez” dio tutore batek. Hau hobetzeko (**19. Grafikoa**), familien eta ikastetxearen arteko harremanak bultzatu behar direla eta ikuspegiak gerturatu behar direla diote zenbait tutorek eta hau ikastetxearen eskuetan egoteaz gain familien eskuetan dago.


19. ZURE KASUAN NOLA HOBETUKO ZENUKE FAMILIEN PARTE HARTZEA?

5 respuestas

- Gogoia ez dagoenean zaila egiten da. Ezin duzu inor behartu. Normalean badakizu nork hartuko duen parte eta nor ez.
- Familien eta ikastetxearen arteko harremanak bultzatu eta ikuspegiak gerturatu
- BEHARTUZ
- Nire alderik ezer gutxi
- Hau bere eskuetan dago

Barruetabeña, 2020

Azkenik, inkestarekin bukatzeko, tutoreei haren lanaren inguruan eta ikasleei eta haien gurasoei dedikatzen dieten denboraren inguruan galdetu zaie (**33. Grafikoa**): Tutoreek; orokorrean, familiekiko kontaktua sustatzen dute ahal duten guztietan, bai haiengana gerturatu harremana sustatuz, seme-alaben inguruan arazo bat dagoenean edota ikastetxeak antolatzen dituen jardueren bidez.



7. ONDORIOAK

Aurreko ataletan, familiek eta irakasleek emandako erantzunak ikusi ditugu ikastetxeko parte hartzearen inguruan. Ikusi dugu nola familien lan egoerak sarritan beraien parte hartzea baldintzatzen duela ikastetxean; izan ere, lan ordutegi ezberdinek edota lanaldi ordu luzeek beraien seme-alaben ikaskuntza prozesuan parte hartzea eragozten diete. Horrez gain, zenbait familien eraketak ere aldaketak jasan ditu urteetan zehar eta honek ere eragina du parte hartze horretan.

Parte hartzea, bileretara joatea, seme-alaben inguruko informazioa jaso zein ematea, ospakizunetan parte hartzea ... oinarritzen da. Guraso guztiek ezagutzen dute tutorea; izan ere, bilera indibidualetan zein taldeko bileretan parte hartu dute noizbait. Parte hartze handiena bileretara joatean ematen dela ikusi da eta horregatik tutoreekiko komunikazioa handiagoa dela adierazi dute guraso gehienek irakasle eta zuzendaritzarekiko komunikazioarekin alderatuta. Tutoreak ere bat datoz erantzun honekin; hala ere, orokorrean maila apur bat baxuagoan kokatzen dute familien komunikazioa.

Tutoretzei dagokionez, guraso gehienek ez dute inoiz eskatzen tutoretzarik edo batzuetan eskatzen dutela aldarrikatu dute; hala ere, tutoreak bilera batera deitzen dienean beti edo ia beti joaten direla aipatu dute. Tutore guztiek antolatu dituzte bilerak ikasturtean zehar, indibidualak zein talde bilerak.

Ezin dugu jakin tutoretzetara joaten ez diren familiak beti berdinak diren edo ez. Lan arazoengatik edota beste arrazoi batzuegatik zenbait familiak ez dute aukera zenbait bileretara joateko. Hala ere, tutoreek diote familiek beharrezkoa denean tutoretzak eskatzen dituztela; beraz, suposa dezakegu familiak orokorrean bilera indibidualetara joaten direla eta falta diren kasuetan talde bileretan izango dela, zailagoa baita guztiei ondo etorriko zaien ordutegi bat adostea.

Eskolarekiko eta tutorekiko komunikazioa orokorrean ematen dela ikusi da, beraien seme-alaben inguruko bilera, ospakizun edota ekintza ezberdinekiko. Familiek erantzun egiten dute eta ahal dutenetan prest azaltzen dira.

Asetasun mailari dagokionez, familia gehienak pozik daude beraien seme-alabek jasotzen duten heziketarekin ikastetxean eta askok ere parte hartzen dute ikastetxeak ekitaldi bat antolatzen duenean. Hala ere, oraindik familia ugari ez dira ikastetxeko partaide sentitzen.

Orokorrean parte hartzeari dagokionez, guraso gehienek 5-8 baten artean kokatu dute beraien parte hartzea. Tutoreek berriz, parte hartzea 4-7 baten artean kokatzen dute. Beraz, bien arteko erantzunak nahiko parekoak dira.

Hala ere, beste zenbaitetan parte hartze falta hori arazo pertsonalen ondorio da; epaituak izateko beldurrari esate baterako, horregatik ez dute parte hartzen eta ez interes faltagatik.

Gurasoak dira beraien seme-alaben heziketaren arduradun nagusiak, lehen heziketa etxean ematen baita. Familia umearen erreferentzia nukleoa da eta segurtasuna transmititzen diotenak. Horrez gain, tutoreei bere seme-alaben inguruko informazioa eskaini ahal die.

Beharrezkoa da, eskolan lortzen diren ikaskuntzak, etxeko giroan eskuratzen direnekin bateratzea. Honi esker umeak segurtasun eta konfiantza handiagoa eskuratzen dute.

Bestalde, ikastetxearen aldetik familien parte hartzea bultzatzeko proposamenen beharra aldarrikatzen dute tutore zein familiek; izan ere, familien komunikazioa tutorekiko askoz handiagoa da; emaitzen arabera, zuzendaritzarekiko komunikazioa baino.

Familia zein tutoreen aldetik, ikastetxeak, irakasle eta gurasoen arteko erlazioa hobetzeko jarduera ezberdinak planteatzearen falta nabari dute gurasoek eta baita irakasle eta gurasoen artean kurtso hasieran bilera bat egitea, bien arteko gertutasuna oztopatzen duten faktoreak aurkitu ahal izateko eta hasieratik zuzentzeko.

Familia guztiak joaten dira tutoretzeara orokorrean; hala ere, bertan parte hartzen duten ama kopurua aita kopurua baino askoz handiagoa da; baita inkestan parte hartu dutenen artean ere. Etxeko zein eskolako erabakiak bi gurasoen artean hatzen dituzte orokorrean; baina, bi gurasoetako bati erantzukizun hau ematerako orduan amek hartzen dute rol hori. Honek, ondorio bat suposatzen digu: amek interes handiagoa erakusten dute haien seme-alaben hezkuntza prozesuan edo aukera gehiago dituzte bere seme-alaben zaintzaz arduratzeko.

Ikastetxe eta familien arteko komunikazioa eraginkorragoa izan dadin, ikas komunitateko eragile guztiak inplikaturik egon behar dute. Modu honetan, zuzendaritza taldeak bere burua ezagutaraztera eman behar die familiei jarduerak ezberdinak antolatuz, proiektuen bidez ... helburu informatibo batekin gutxienez.

Ikusi dugu; hortaz, familiak eta eskolak helburu berdina jarraitzen dutela; beraien seme-alaben eta ikasleen heziketa eta garapen integrala (maila sozial, afektibo, kognitibo eta moralari dagokionez) eta beraien inplikazioa irakaskuntza/ikaskuntza prozesuan garapen horretan eragina izango du. Horretarako, familiak eta eskolak, umeen hezkuntzan duten garrantzia eta bien arteko komunikazioaren eta erlazioaren beharra aldarrikatu behar dute.

Laburbilduz, familia eta eskolaren arteko erlazioa funtsezko faktore bat da ikaskuntza prozesuari eta umearen garapenari dagokionez eta kolaborazio hori gabe ezinezkoa da kalitatezko hezkuntza bat aurrera eraman ahal izatea. Horretarako, ezinbestekoa da gaur egun bizi den elkarren kontrako eta konfiantza faltako egoera hori gainditzea zenbait balore eta joera zehatz batzuk lortzeko umeei kalitatezko hezkuntza bat emate aldera.

8. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Bukatzeko, analisiaren esparru eta mugei dagokionez; analisi honek, ikastetxe konkretu batean (La Salle Isasi) bizi den egoera erakusten du; beraz, ezin da hezkuntza osoaren errealitatera orokortu. Sorturiko hobekuntza proposamena; beraz, lorturiko laginaren araberakoa izan da beren aplikazioa.

Ikerketa hobetzeko aldeei dagokionez; galdera berriak planteatu daitezke, pertsona esanguratsu gehiago elkarrizketatu (zuzendaritza taldeko norbait, zuzendari ohi bat beraien iritzia ezagutzeko edota AMPAko kideren bat beraien errealitatea ezagutzeko).

Lanaldi ordu ezberdin zein luzeen eta zenbaitetan aurkitzen diren errekurtsio falten ondorioz, lagin handiago bat eskuratzea zaila suertatu da eta hortik emaitza zehatzagoak eskuratzea; hala ere, eginiko laginaren bidez errealitatera gerturatzen diren emaitzak lortu ahal izan dira.

Ikastetxeak, familiak animatu behar ditu era askotariko jardueretan parte hartzen eta ez soilik ospakizun edota eskolaz kanpoko jarduerak baizik eta ikastetxearen barne antolakuntzako jardueretan.

Horretarako, bi sektoreen arteko kolaborazioa bilatu behar da denbora falta eta bizitza laborala eta familiarra bateratzeko zailtasunak gainditzeko estrategiak aurkituz. Familien eta irakasleen arteko komunikazioa eta erlazioa indartu behar da komunikabide informalagoak erabiliz.

Proposamen hau **“Ikastetxeko bizitzan inplikatze”** proposamen bat baino ez da eta komunikazioa areagotuko duen jarduera sekuentzia batzuen bidez ikastetxe eta familien arteko ezberdintasunak murriztea eta bien arteko kolaborazioa indartzea.

Ikastetxeko bizitzan inplikatzeko familiak animatu behar ditugu eta horretarako familiekiko harremanak hobetu behar dira kurtsoa hasten denetik bukatzen den arte kontaktua ugarituz eta haiengana gerturatuz.

Kurtsoa hasten den momentutik, ikastetxearen aldetik, informazioa partekatzeko jardunaldiak proposatu behar dira irakasle zein tutoreek familiei beharrezko informazioa adierazteko. Horrela, kurtso hasieratik loturak eratzen dira familiekiko eta ikastetxearen aldetik gardentasuna adierazten da.

Behin loturak ezarrita, kurtsoan zeharreko egunerokotasunean komunikaturik egoteko sistema bat eratu behar da; agenden bidez esate baterako, tutore/irakasle zein gurasoek ikasgelan edota etxean gertaturiko eta umearekin zerikusia duen edozein datu idazteko. Komunikazio honek; familiei, haien seme-alaben eboluzioa zelako den eta ikasgelan sortu daitezkeen arazoak ezagutzeko erraztuko die. Bestalde, tutoreei umeen egoera fisiko, sozial eta mentala zein den ezagutzeko balioko die eta horren araberrako ikasketa planak egokitzea.

Kurtso hasierako bilera informatiboez gain, ebaluazio bilerak egin behar dira ikasle bakoitzaren gurasoekin. Kasu honetan tutoreak familiei hiruhileko bakoitzari dagokion ebaluazio txostenak entregatuko dizkie gurasoei; non, bileran aipatutakoa informazioa idatziz eskainiz.

Bilera formalez gain, gurasoek beraien seme-alabek landuko dituzten gaiak zein unitate didaktikoetan parte hartzeko aukera eman behar zaie. Unitate didaktiko bakoitzaren hasieran familiekin partekatuko da jorratuko diren edukiak; modu honetan, familiek gaiaren inguruan beharrezko jakintzak baldin badituzte eduki hauen garapenean parte hartu dezakete.

Gainera, betidanik, ikastetxeetan egin diren eskolaz kanpoko ekintzetan parte hartzeko gonbitea zabalduko zaie gurasoei jarduera hauen antolakuntzan ikastetxearekin batera parte hartzeko eta beraien ideiak proposatzeko (Gabonak, Aratusteak ...)

Azkenik, kurtso amaieran bilera bat egitea proposatuko da familia guztiekin ikasturtean zehar egon den komunikazioa, parte hartzea, inplikazioa ... baloratzeko eta proposamenak gerturatzeko hurrengo ikasturteari begira. Horrez gain, beste bilera bat egingo da; kasu honetan indibiduala, ikasle bakoitzaren gurasoekin, ikasleari buruzko ebaluazioa egiteko eta kurtso amaierako txostena emateko, baita udan jarraitu beharreko proposamenak zabaltzeko ere.

Asko geratzen zaigu oraindik egiteko eta hobetzeko komunikazio hori behar bezalakoa izatera heltzeko; hala ere, behin hori lortuta bi alderdiei onura ugari ekarriko dizkio. Eskolak bere eginkizuna hobeto beteko du umeak ondo ezagutzen baditu, bere ahultasunak, indarguneak, egoera soziala ... eta ezaugarri hauek hobeto ezagutzen dituztenak gurasoak dira.

9. BIBLIOGRAFIA

- ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK:

- Andrés, S., & Giró, J. (2016). La participación de las familias en la escuela: una cuestión compleja. *Revista De Evaluación De Programas Y Políticas Públicas*, (7), 28-47. <http://revistas.uned.es/index.php/REPPP/article/view/16302> web orritik berreskuratua.
- Blanco, M. A. et al (2005). Escuela de familias: la experiencia del colegio María Inmaculada. *Educación y Futuro: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, (12), 51-60. Berreskuratua: <https://dialnet.unirioja.es/descarga/articulo/2047044.pdf>
- Blanco, M. V. (2014). *Una propuesta de trabajo para implicar a las familias en las escuelas de E.I.* (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Cádiz. Berreskuratua: <https://rodin.uca.es/xmlui/bitstream/handle/10498/16607/16607.pdf>
- Bolivar, A. (2006). Familia y escuela: dos mundos llamados a trabajar en común. *Revista De Educación*, 339, 119-146. Berreskuratua: http://ibdigital.uib.es/greenstone/collect/portal_social/index/assoc/miso1089/4_002.dir/miso10894_002.pdf
- Ceballos, E. (2006). Dimensiones de análisis del diagnóstico en educación: el diagnóstico del contexto familiar. *Revista Electrónica De Investigación Y Evaluación Educativa*, 12(1), 33-47. Berreskuratua. <https://ojs.uv.es/index.php/RELIEVE/article/view/4244/3861>
- De Pablo Masa, A. (1975). *Funciones de la familia*. Estudios sociológicos sobre la situación social en España. (pp. 345-366). Berreskuratua: https://books.google.es/books?id=7jU35B7aSzMC&pg=PA345&dq=funciones+de+la+familia&hl=es&sa=X&ei=QvJTUufGYX00gX9_YDADQ&ved=0CEkQ6AEwBA#v=onepage&q=funciones%20de%20la%20familia&f=false

- Díaz, L. (2014). *La familia entra al aula de infantil. Una realidad posible*. (Trabajo Fin de Grado). Universidad Internacional de la Rioja. Berreskuratua: <http://reunir.unir.net/bitstream/handle/123456789/2507/diaz.estevez.pdf?sequence=1>
- Domínguez, E. (2014). *Escuela y familia. Importancia de la coparticipación entre ambas instituciones* (Trabajo Fin de Grado). Universidad Computense de Madrid. Berreskuratua: http://eprints.ucm.es/29886/1/TFGinfan_14_dominguez-garcia-esmeralda.pdf
- Garreta, J. (2014). La comunicación familia-escuela en Educación Infantil y Primaria. *Revista de la Asociación de la Educación*, Vol. 8, nº 1, 71-85 orr.
- González, R. (2015). *Aulas abiertas. La participación de la familia*. (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Segovia. Berreskuratua: <https://uvadoc.uva.es/bitstream/10324/1457/1/TFG-B.84.pdf>
- León, A. (2019). *Los 14 tipos de familia que existen y sus características*. lifeder. Berreskuratua: <https://www.lifeder.com/tipos-de-familia/>.
- Maestre, A. (2009). "Familia y Escuela. Los Pilares De La Educación". *Innovación Y Experiencias Educativas*, 14, 1-11. Berreskuratua: https://archivos.csif.es/archivos/andalucia/ensenanza/revistas/csicsif/revista/pdf/Numero_14/ANA%20BELEN_MAESTRE_1.pdf.
- Molina Brizuela, Y. (2011). *Individuo, Familia y Sociedad*. Contribuciones a las Ciencias Sociales. Berreskuratua: <https://studylib.es/doc/772938/individuo--familia-y-sociedad>
- Oliva, E. (2014). Hacia un concepto interdisciplinario de la familia en la globalización. *Justicia Juris*, 10(1), 11-20. Berreskuratua: <http://www.scielo.org.co/pdf/jusju/v10n1/v10n1a02>.
- Organización Mundial de la Salud. (16 de octubre de 2009) *Definición de familia*. Berreskuratua: <http://cbtis149ctsv3lc2.blogspot.com/2009/10/definicion-de-familia-segun-la-oms.html>

- Puebla, N. (2015). *La participación de las familias en educación infantil. Elaboración de una propuesta educativa inclusiva de las familias en el aula.* (Trabajo Fin de Grado). Universidad de Valladolid. Berreskuratua: <https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/6675/TFG-L606.pdf?sequence=1>
- Real Academia Española. (s.f.). Cultura. En *Diccionario de la lengua española*. Berreskuratua, 2020ko maiatzaren 12an: <https://dle.rae.es/familia?m=form>
- Valencia, Y. (2016). *ORIGEN Y EVOLUCIÓN DE LA FAMILIA, Una mirada al Curso "Perspectiva sociocultural de la Familia"*. ResearchGate. Berreskuratua: https://www.researchgate.net/publication/316977142_ORIGEN_Y_EVOLUCION_DE_LA_FAMILIA_Una_mirada_al_Curso_Perspectiva_sociocultural_de_la_Familia.
- Vander Zanden, J. (1986). *Socialización y Desarrollo Social* [Ebook] (p. Tema 2). Berreskuratua: <https://rua.ua.es/dspace/bitstream/10045/14285/1/TEMA%20%20SOCIALIZACI%3%93N%20Y%20DESARROLLO%20SOCIAL.pdf>.
- González, P., Reparaz, R. eta Sanz, A. (2016). *Familien parte-hartzea Nafarroako hezkuntza sisteman*. Iruña: Nafarroako Eskola Kontseilua

- ARAUDIAREN BIBLIOGRAFIA

- Ley 14/1970, de 4 de agosto, General de Educación y Financiamiento de la Reforma Educativa. *BOE de 6 de agosto*. núm. 187, pp. 12525 a 12546. Berreskuratua: <https://www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-1970-852>
- Ley Orgánica 5/1980, de 19 de junio, por la que se regula el estatuto de Centros Escolares. *BOE. núm. 154, de 27 de junio*, pp. 14633-14636. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/1980/06/27/pdfs/A14633-14636.pdf>
- Ley Orgánica 8/1985, de 3 de julio, reguladora del Derecho a la Educación. *BOE. núm. 159, de 4 de julio*, pp. 21015-21022. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/1985/07/04/pdfs/A21015-21022.pdf>

- Ley Orgánica 1/1990, de 3 de octubre de 1990, de Ordenación General del Sistema Educativo. *BOE. núm. 238, de 4 de octubre*, pp. 28927-28942. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/1990/10/04/pdfs/A28927-28942.pdf>
- Ley Orgánica 9/1995, de 20 de noviembre, de la Participación, la Evaluación y Gobierno de los Centros. *BOE. núm. 278, de 21 de noviembre*, pp. 33651-33665. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/1995/11/21/pdfs/A33651-33665.pdf>
- Ley Orgánica 10/2002, de 23 de diciembre, de Calidad de la Educación. *BOE. núm. 307, de 24 de diciembre*, pp. 45188-45220. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/2002/12/24/pdfs/A45188-45220.pdf>
- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación. *BOE. núm. 106, de 4 de mayo*, pp. 17158-17207. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/2006/05/04/pdfs/A17158-17207.pdf>
- Ley Orgánica 8/2013, de 9 de diciembre, de para la Mejora de la Calidad Educativa. *BOE. núm. 295. de 10 de diciembre*. pp. 97858-97920. Berreskuratua: <https://www.boe.es/boe/dias/2013/12/10/pdfs/BOE-A-2013-12886.pdf>

10. ERANSKINAK

- 1. ERANSKINA: FAMILIEN GALDETEGIA

INKESTARAKO DATUAK

ZENBAT SEME ALABA

ZEINEK BETETZEN DU INKESTA?

Aita Ama Biok Tutore legalak

SEME ALABEN IKASKUNTZA ETAPA

ZEIN DA ZURE LAN EGOERA?

-Lanaldi osoko lana

- Lanaldi partziala

- Lanik ez

FAMILIAK ZAILTASUNIK AL DU LANA SEME/ALABEN IKASKUNTZAREKIN BATERA AURRERA ERAMATERAKO ORDUAN?

Bai

Ez

KASU HONETAN ZEINTZUK DIRA ARRAZOIAK?

Lanaldi ordutegi ezberdinak

Lanaldi ordu luzeak

Beste familiako kide batzuk nire kargu

Beste batzuk _____

ZELAN JOATEN DA IKASTETXERA ZUEN SEME ALABA?

Oinez

Gurasoekin

Lagunekin

Autoz

Autobusez

Bizikletaz

ZEIN DA ZUEN EGUNGO FAMILIA MOTA?

Bikotea seme alabekin

Bikotea seme alaba eta beste familiarrekin

Ama edo aita seme alabekin

Ama edo aita seme alaba eta beste familiarrekin

Tutore legala

Beste bat _____

ZUZENDARIA EZAGUTZEN DUZU?

BAI

EZ

SEME ALABAREN TUTOREA EZAGUTZEN DUZU?

BAI

EZ

HITZ EGITEN DUZU ZURE SEME ALABAREKIN BERE EGOERA FAMILIARRAZ, ESKOLAKOAZ ...?

BAI

EZ

ETXEAN BIZITZEKO ARAU BATZUK EZARRIAK DITUZU?

BAI

EZ

ARAU HAUEK BETETZEN DIRA? BETI

BATZUETAN

INOIZ

ZEINEK HARTZEN DITU ETXEKO ERABAKIAK?

AITAK

AMAK

BIOK

BESTE BATEK

ZENBAT ORDU ESKAINTZEN DIO EGUNEAN ZUEN SEME/ALABAK TELEBISTA, INTERNET, BIDEOJOKOAK ... BEZALAKO JARDUEREI? _____

1- Zein kasutan edukitzen duzu erlazioa zure seme alaben ikastetxearekin?

- Bileren batera joaten naizenean
- Nire seme alabei buruzko informazioa eman edo jaso nahi dudanean
- Nire seme alabekin zerikusia duten arazo bat dagoenean
- Seme alabak eskolara eramaterakoan soilik
- Inoiz ez

2- Guraso bezala, zure parte hartzea eskolarekiko handia dela uste duzu? Baloratu 0tik 10ra (0 parte hartzerik ez eta 10 parte hartzea oso handia)

3- Zure bizipenetik abiatuta zure komunikazioa irakasleekiko, tutorearekiko eta zuzendaritzarekiko honakoa da:

- | | | | | |
|---|--------|---------|--------|------------|
| <input type="checkbox"/> Irakasleekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |
| <input type="checkbox"/> Tutorearekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |
| <input type="checkbox"/> Zuzendaritzarekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |

4- Zure iritziz, zeintzuk dira ikastetxean familiek parte hartzea gehien eragozten duten faktoreak?

- Familiek daukaten interes falta
- Denbora falta eta ordutegiak moldatzeko ezintasuna
- Irakasleen interes falta
- Familia eta irakasleen arteko konfiantza falta
- Beste bat _____

5- Zeintzuk dira orokorrean ikastetxeak familiak deitzeko arrazoi nagusiak?

- Ikasketen buruzko bilerak tutore edo irakasleekin
- Ikasketen proiektuak familien parte hartzea beharrezkoa dutenak
- Ikastetxeak antolatutako jardueretan parte hartzeko gonbidapenak
- Ikasle baten edo ikasle batzuen arteko jarrera arazoak
- Jai egunak edota ospakizunak

6- Ze garrantzi du AMPAK eta eskola kontseiluak egiten duten lana?

- | | | |
|---|--------------------|----------------------|
| <input type="checkbox"/> AMPA: | Ez du garrantzirik | Garrantzi txikia |
| | Garrantzi handia | Garrantzi oso handia |
| <input type="checkbox"/> Eskola Kontseilua: | Ez du garrantzirik | Garrantzi txikia |
| | Garrantzi handia | Garrantzi oso handia |

7- Ze jarduera edo ekintza planteatu beharko luke ikastetxeak familiek ikastetxean parte hartzeko kontzientzia har dezaten?

- Irakasleen eta gurasoen arteko erlazioa hobetzeko jarduera ezberdinak planteatzea

- Kurtso hasieran irakasle eta gurasoen arteko bilera bat egitea bien arteko erlazioa eragozten duten faktoreak zeintzuk diren aurkitu eta soluzioak bilatzeko
- AMPAren aldetik kurtso hasieran gelan lantzeko gai interesgarriei buruzko zerrenda bat egitea
- Gurasoei helarazi nahi zaien mezuak heldu direla ziurtatzea, korreo elektronikoen, ikastetxeko sarrera eta irteeren, umeen ... bidez
- Denbora zehatz batean behin ikasleen gurasoei galdetegiak helaraztea beraien iritzia jasotzeko zenbat gairen inguruan

8- Nire seme alabari laguntzen diot eskolako jardueretan:

- Beti ia beti Noizbehinka ia inoiz Inoiz

9- Ez diozunean zure seme alabari laguntzen eskolako zereginetan zergatik izaten da?

- Ez daukat denborarik
- Ez daukat jakintza nahikorik
- Klase partikularretara joaten da eta bertan egiten ditu jarduerak
- Ez du nire laguntzarik behar
- Beste bat _____

10- Zure seme alabak ez dituenean ariketak egiten zein da hartzen duzun erabakia?

- Zigortzea (Beti, ia beti, noizbehinka, ia inoiz, inoiz)
- Errieta botatzea
- Ikastera behartzea
- Bere lanak egitera animatzea (sarien bitartez)
- Berarekin hitz egitea eta ulertzea etxeko lanak zergatik egin behar dituen
- Beste bat _____

11- Eskolako inguruarekin hartu beharreko erabakiak normalean zeinek hartzen ditu:

- Aitak
- Amak
- Biek
- Beste familiako kide batek
- Inork

12- Nire seme alabak ikastetxeko beste kide batekin arazorik badu:

- Irakaslearekin hitz egiten dut
- Kide horren gurasoekin hitz egiten dut bi umeen arteko arazoa konpontzeko
- Umearekin hitz egiten dut
- Nire seme alabarekin hitz egiten dut
- Ez dut ezer egiten
- Beste bat _____

13- Nire seme alabei influentzia ezartzen dieten pertsonak dira

- Aita
- Ama
- Anai arreba nagusiak

- Aiton-amonak
- Beste batzuk _____

14- Guraso moduan nire seme alabarekin jokatzeko modua hau da:

- Nire seme alabak dituen jarrera positiboak gorai patzen ditut
- Nire seme alabak ez duenean nik esaten diodana egiten haserretu edo oihukatu egiten diot
- Beti espero dut nire seme alabari esaten diodana egitea eta bestela ez diot kasurik egiten
- Nire seme alabak beti egiten du nahi duena eta ez haserretzeagatik nahi duena egiten lagatzen diot
- Egunaren arabera ez diot bat barkatzen edota nahi duena egiten uzten diot

15- Etxean bizitzeko orduan...

- Arau batzuk daude guztiontzako (ordutegiak, arauak, jarrerak ...)
- Astero hitz egiten dugu, elkarrekin egoteko eta gauzak batera egiteko
- Familiaren intereserako erabakietan nire seme alaben iritzia kontuan hartzen da
- Dena ondo joateko, bakoitzak bete behar batzuk ditu Aurrera eraman behar direnak

16- Nire seme alabaren tutoreak tutoretza edo bilera baterako deitzen didanean joaten naiz:

- Beti Ia beti Batzuetan Inoiz

17- Kurtsoan zehar tutoretzak eskatzen ditut nire seme alabaren tutorearekin:

- Beti, ia beti, batzuetan, inoiz

18- Ikastetxearekiko komunikazio nola ematen da?

- Ahoz, modu zuzenean
- Telefonoz, korreoz ... modu ez zuzenean
- Beste batzuk _____

19- Gai hauetatik zeintzuk lantzen dira tutorearekin izaten duzun bileretan?

- Jarrera kontuak, asistentzia falta edo antzerakoak
- Ikaskuntza prozesuaren inguruko jarraipenak; aspektu positibo zein zailtasunak
- Bere garapenaren inguruko aspektuak, garapen pertsonala eta soziala, bere ahalmenak, motibazioak, interesak ...

20- Adierazi zein den zure adostasun maila (1 ez nago ados 10 ados nago) ondorengo hauekin:

- Ikastetxeko partaide sentitzen naiz
- Ikastetxeak ekitaldi batean parte hartzen badu, parte hartzen edo ikusten saiatzen naiz
- Gustura nago nire seme alabak jasotzen duen hezkuntzarekin ikastetxean
- Nire seme alabaren etorkizuna ikastetxean jasotzen duen ikaskuntza prozesuak baldintzatua egongo da.

21- AMPA eta Eskola Kontseiluan duzun parte hartzearen arabera, zehaztu zein zailtasun duzun bertan parte hartzerako orduan:

- Ez dut zailtasunik ikusten
- Ez dakit AMPA eta Eskola Kontseilua zer diren
- Ez nago interesatua AMPA eta Eskola Kontseiluan
- Ez dut nire burua kapaz ikusten bertan parte hartzeko
- Nire ordutegiak parte hartzea eragozten dit
- Beste batzuk _____

• 2. ERANSKINA: TUTOREEN GALDETEGIA

ZE KURTSOTAKO TUTORE ZARA?

ZENBAT IKASLE DITUZU?

ZENBAT URTE DARAMATZAZU IKASTETXEAN? _____

BILERARIK ANTOLATU DUZU IKASTURTE HONETAN? ZENBAT? _____

ZEINTZUK IZAN DIRA BILERA HAUEK ANTOLATZEAREN ARRAZOIAK?

- Informazio orokorra
- Jarduera espezifikoak (txangoak, jarduerak ...)
- Beste batzuk

OROKORREAN ZEIN JOATEN DA BILERETARA?

- Aita
- Ama
- Biak
- Beste batzuk

IKASLE GUZTIEN FAMILIAK JOATEN DIRA BILERETARA? Bai Ez

BILERA INDIVIDUALIK EGIN DUZU? ZEIN ARRAZOIREKIN?

- Ikasle bati buruzko informazioa emateko
- Jarrera arazoei buruz hitz egiteko
- Beste batzuk

FAMILIEI JARDUERA EZBERDINEN BERRI INFORMATZEN DIEZU? Bai Ez

KASU HONETAN ZELAN HELARAZTEN DIEZU INFORMAZIOA?

- Ikaslearen bidez
- Agendan idatzita edo korreo elektronikoz
- Zuzenean gurasoei eskolako sarrera eta irteeretan
- Beste batzuk

ERABILTZEN AL DUZU FAMILIEKIN KOMUNIKATURIK EGOTEKO AGENDAK EDO BESTELAKOAK? Bai Ez

KASU HONETAN ZERTAN OINARRITZEN DA? _____

ZELAKOA USTE DUZU DELA GURASOEN PARTE HARTZEA IKASTETXEAN?

ZEIN NEURRITAN USTE DUZU IKASTETXEAK GURASOEN PARTE HARTZEA BULTZATZEN DUELA? _____

FAMILIEN PARTE HARTZEA FUNTSEZKO FAKTORE BAT DA IKASKUNTZA PROZESURAKO? ZERGATIK? Bai Ez

ZURE KASUAN NOLA HOBETUKO ZENUKE FAMILIEN PARTE HARTZEA?

1- Familiak tutoretzetara joaten dira?

- Askotan
- Noizean behin
- Gutxitan
- Inoiz

2- Familiak tutoretzak eskatzen dituzte beharrezkoa denean?

- Askotan
- Noizean behin
- Gutxitan
- Inoiz

3- Familiak gelako bileretara joaten dira?

- Askotan
- Noizean behin
- Gutxitan
- Inoiz

4- Eskolako sarreretan ikasleen gurasoekin hizketaldiak edukitzen dituzu? Zer gai jorratzen dituzu? Bai Ez

5- Familiekin dituzun tutoretzak baliagarriak izaten dira? Zergatik?

Bai Ez _____

6- Familien eta ikastetxearen arteko komunikazioa nola ematen da?

- Zuzenean
- Korreoz, telefonoz, ikasleei ematen zaien noten bidez ...
- Beste batzuk _____

7- Honako gai hauek zenbatetan lantzen dira familiekiko bileretan?

- Jarrera arazoak
- Ikasketa prozesuaren jarraipena
- Bere garapen pertsonal eta sozialarekin zerikusia duten gaiak
- Beste batzuk _____

8- Ikasleen familiekin dituzun tutoretzetan zein zailtasun ikusi ahal dituzu?

- Ez dut zailtasunik ikusten
- Familiak ez dute esfortzu handirik egiten bileretara joateko
- Eginkizun familiarrek eta lanak bileretara joatea eragozten die
- Ez dira eroso sentitzen tutoreekin dituzten bileretan
- Arazoak eduki dituzte ikastetxeko irakasleren batekin

- Beste batzuk _____

9- Zure ustez familian parte hartzea ikastetxean beharrezkoa da? Zergatik?

10-Zure ustez behar beste parte hartzen dute familiek? Baloratu 0tik 10ra

11-Zure bizipenetik abiatuta familien komunikazioa, irakasle, tutore eta zuzendaritzarekiko honakoa da:

- | | | | | |
|---|--------|---------|--------|------------|
| <input type="checkbox"/> Irakasleekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |
| <input type="checkbox"/> Tutorearekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |
| <input type="checkbox"/> Zuzendaritzarekiko: | Txikia | Ertaina | Handia | Oso handia |

12-Zure iritziz, zeintzuk dira ikastetxean familiek parte hartzea gehien eragozten dutenak?

- Familiek daukaten interes falta
- Denbora falta eta ordutegiak moldatzeko ezintasuna
- Irakasleen interes falta
- Familia eta irakasleen arteko konfiantza falta
- Beste bat _____

13-Ze jarduera edo ekintza planteatu beharko luke ikastetxeak familiek ikastetxean parte hartzeko kontzientzia har dezaten?

- Irakasleen eta gurasoen arteko erlazioa hobetzeko jarduera ezberdinak planteatzea
- Kurtso hasieran irakasle eta gurasoen arteko bilera bat egitea bien arteko erlazioa eragozten duten faktoreak zeintzuk diren aurkitu eta soluzioak bilatzeko
- AMPAren aldetik kurtso hasieran gelan lantzeko gai interesgarriei buruzko zerrenda bat egitea
- Gurasoei helarazi nahi zaien mezuak heldu direla ziurtatzea, korreo elektronikoan, ikastetxeko sarrera eta irteeren, umeen ... bidez
- Denbora zehatz batean behin ikasleen gurasoei galdetegiak helaraztea beraien iritzia jasotzeko zenbat gairen inguruan

14-Ikastetxeak antolatzen dituen jardueren artean zein zailtasun ikusten duzu familien partetik horietan parte hartzeko orduan?

- Ez dut zailtasunik ikusten
- Familiei ez zaie interesatzen ikastetxeak antolatzen dituen jarduerak
- Ikastetxeko langileek ez dugu errazten familien parte hartzea jarduera hauetan
- Bizitza laboralak zailtasunak agerrarazten ditu jardueretan parte hartzeko orduan
- Beste batzuk _____

15- Honako hauetatik zeintzuk betetzen ditut?

- Heziketa jaso dut nire ikasleen gurasoak nola tratatzen ikasteko
- Familiekiko kontaktua sustatzen dut ahal dudan guztietan nigana gerturatzeko aukera emanez edozein gauza argitzeko
- Guraso irakasle harremana sustatzen saiatzen naiz

- Familien parte hartzea sustatzen saiatzen naiz ikastetxeak antolatzen dituen jardueretan
- Ikasleen familien parte hartzea eskatzen dut beraien seme alaben inguruan arazo bat dudanean

16-Familiei dedikatzen diozun denbora guztiaren artetik, zein ehuneko du jarraian agertzen diren erlazio bakoitzak?

- Elkarrizketa indibidualak ikasle baten ikasketa garapenaren inguruan
- Elkarrizketa indibidualak ikasle baten jarreraren inguruan
- Bilerak nire ikasleen gurasoekin
- Bilera informalak familiekin
- Formakuntza jarduerak familiekin
- AMPAekin eta eskola kontseiluarekin bilerak

- 3. ERANSKINA: FAMILIA ETA TUTOREENTZAKO GUTUNA

Guraso agurgarriok,

Nire izena Jon Barruetabeña da, magisteritza ikasketa aurrera eraman ditut eta Gradu Amaierako Lana (TFG) egiten ari naiz momentu honetan. Pasaden ikasturtean ikastetxe honetan (La Salle Isasi) aritu nintzen praktikak egiten irakasle gisa. Lan honetarako hautaturiko gaia “Familien parte hartzea eskolan eta hezkuntza sisteman” izan da. Egiten ari naizen lan hau beharrezkoa dut nire lehen hezkuntzako irakasle formakuntza bukatu ahal izateko eta horretarako bi galdetegi prestatu ditut; alde batetik, ikastetxe honetako ikasleen gurasoentzat zuzenduta egongo dena eta beste alde batetik ikasleen tutoreentzat zuzenduta dagoena.

Proiektu honen helburua ikastetxearen eta ikastetxera bertaratzen diren ikasleen familien arteko erlazioa ezagutzea da, baita familien parte hartzea ikastetxeko ingurunean nolakoa den ezagutzea, hortik abiatuta erantzunak aztertu eta hobekuntza proposamenak sortu ahal izateko.

Jarraian erantsita doan galdetegia guztiz boluntarioa eta anonimoa da. Bertan agertuko diren erantzunak nire proiekturako soilik erabiliko dira; beraz, eta ahal izanez gero zintzotasunez erantzutea gustatuko litzaidake. Galdetegi hau zuen seme-alaben bitartez itzuli dezakezue ikastetxera nik berriz jaso ahal izateko.

Aldez aurretik zuen kolaborazioa eta parte hartzea eskertzen ditut

Eibar, 2020ko Martxoaren 10^a.